



Gure energia etorkizunera eraman nahi dugu

2018KO URTEKO TXOSTENA



Aurkibidea

1. Presidentearen mezua	03
2. Balio-katea	06
3. Gas-energiaren sektoreko aurreikuspenak	08
3.1. Sistemaren erronkak	10
3.2. Egoera erregulatzailea	11
3.3. Gas naturalak energia-trantsizioan duen zeregina	13
3.4. Gas berriztagarria eta gas natural eramaila	14
4. Nortegas	17
4.1. Sozietatearen egitura eta gobernu-organoak	21
4.2. Antolakuntza-egitura	22
4.3. Xedea eta ikuspegia	23
4.4. Balioak	24
4.5. Etika	25
5. Nortegas 2018an	26
5.1. Konpromisoa hazkundearekin	28
5.2. Konpromisoa segurtasunarekin	31
5.3. Konpromisoa kalitatearekin eta ingurumenarekin	34
5.4. Bezeroaren asebetetze maila	38
5.5. Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko apustua	42
5.6. Gas-energiaren sektorean dugun presentzia	44
5.7. Pertsonak	46
5.8. Ekintza soziala	52
6. Laburpen Finantzarioa	53
7. GJH-ei egindako ekarpena	57



1. Presidentearen mezua

Nortegasek 2017ko uztailen hasi zuen ibilbide berriari hasiera eman ondoren, eta JP Morgan-ek zuzendutako partzuergoak –Gulf Cooperation Council, Swiss Life eta Covalis Capital konpainiekin batera– konpainia erosi ondoren, 2018. urtea lehenengo urte osoa da enpresa erabat independente moduan.

2018an gobernu korporatiboaren eraketa burutu genuen Bilboko gure egoitza zentralean, eta administrazio-kontseiluak gobernu onaren hainbat kode eta arau onartu zituen, integritatearen, ekitatearen eta erantzukizunaren gure balio etikoak erreferentziatzat harturik.

Aurten, marka berria sortzeaz gain, antolakuntza-egitura bat finkatzea ere lortu dugu, eraginkortasunean, hurbiltasunean eta berrikuntzan oinarritutako kultura korporatibo baten barruan, zeinari esker Espainiako iparraldean gasa banatzeko negozioarako dugun gaitasuna indartu ahal izan baitugu.

Konpainia independente moduan finkatzeko aldia amaitu ondoren, etapa berri bati egin diogu aurre, non garapen- eta hazkunde-proiektu garrantzitsu bat dugun aurretik, gure jarduera egiten dugun tokiko gizarteari zerbitzu on bat emateko; izan ere, 2030-2050 biderako energia-trantsizio egoera horretan, gas naturala funtsezko pieza da eta izango da urte askoan. Horrek, zalantzarik gabe, hainbat erronka eta aukera ematen dizkio Nortegasi, eta aprobetxatu egingo ditugu.

Posizio berri horren bidez, hainbat kudeaketa-prozesu ezarri ditugu finantzaren, erosketen, zerbitzu informatikoen eta gasa banatzearen eta PGLren jarduerari laguntzeko eremu guztietan. Ildo horretatik, eta jardueraren kalitate eta eraginkortasun maximoa ziurtatze aldera, eragiketa-zentroak indartu ditugu Asturiasen, Kantabrian eta Euskadin, alegia, jarduten dugun hiru autonomia erkidegoetan.

Nortasun berriak pertsonalitate propioa eta nabarmena ematen digu gasaren banaketa-merkatuan eta horren bidez, 2018an, bezeroari arreta emateko eta hazkunderako estrategia berriaren definitu dugu jarduten dugun lurralde guztietan.

Energia-agertoki berri honetan landu beharreko erronkei aurre egiteko, gure zerbitzuak ematen dizkiegun gizartearen interes-taldeei etengabeko arreta eta gure jarrerarik onena eskaintzen diegu, gure artean adimen eta lankidetzat bikainak izan ditzagun, besteak beste honako hauekin: gure bezeroak, ekipo- eta zerbitzu-onuren hornitzaileak, administrazio publikoak, I+G+b erakunde akademikoak eta zientifikoak eta gizarte-erakundeak, orokorrean; horiek guztiak Nortegasko langileen erreferente dira.

Konpainiak sektoreko ratorik onenen arteko bat du, eta egiten jakitea, harreman- eta eskuratze-kapilaritatea eta ibilbide osoan metatutako eragina jasotzen ditu; hori guztia gure taldeen talentuaren eta profesionaltasunaren laguntzarekin.

Hazkunde-plan handinahia du, gure akziodun berriek bultzatua eta gure profesionalek babestua, eta horri esker, Nortegasen negozioa zifra errekorretan kokatu da.

2018. ekitaldia ixtean, 8.208 kilometroko sarea genuen, zeinaren bidez gas naturala eta PGL milioi bat hornidura-puntu baino gehiagori banatzen baitiegu, eta non gas bideratua % 5,1 handitu den, konpainiak industria-sektorearen alde egindako apustuari esker, baita ekitaldian zehar izandako baldintza meteorologikoei esker ere. Estatu mailan % 12ko merkatu-kuota izanik, eragiketen segurtasuna eta kalitatea gure lehenetasuna dira oraindik ere, eta aldi berean, erreferente gara bezeroarekiko arretan, konpromisoan eta laguntzan.

Gas-sistemaren erreferentziatzko eragile izateak ematen dion erantzukizuna kontuan harturik, eta Europar Batasunak definitutako karbono baxuko ekonomiaren barruan, Nortegasek gas naturala eraldaketa-bektore moduan zabaltzearen aldeko apustua egiten du, bai ohiko erabileretan, zein garraioarekin lotutako erabilera berrietan edo banaketa-sareetan gas berriztagarria txertatzean ere. Egoera horretan, 2018an hainbat inbertsio egin genituen hainbat I+G+b lineatan, eta Washingtonen International Gas Union-en (IGU) eskutik saria jaso zuen proiektu bat landu genuen.

Araudiari dagokion eremuan, gure konpainiaren erronka da gas-banaketaren jarduera garatzeko egonkortasuna eta

ingurune egokia bermatzea, gas naturalaren, konbentzionalaren edo berriztagarriaren erabilera balioan jarritz. 2021ean araudi-aldaketa izango denez, ordainsari-esparru bat definitzen lan egiten ari gara, Nortegas posizionamendu hobeezinean kokatu dadin hedapen-erronkei eta gas naturalarekin lotutako ezarpen berriei aurre egiteko.

Horrela, Nortegas Nazio Batuen Mundu mailako Itunera atxiki da, eta konpromiso irmoa hartu du Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzen laguntzeko, hau da, giza eskubideak defendatzeko eta beharrezko berrikuntza sustatzeko agenda bat betetzen laguntzeko, pertsonentzako eta planetarentzako etorkizun jasangarria eraiki ahal izateko.

Gure garapen zein dibertsifikazio mailako estrategiari, ahalegin berritzaileari, kudeaketaren bikaintasunari eta gure giza taldearen dedikazioari esker, 2019rako aurreikuspena da aurrera egiten jarraitzea, gas naturalaren banaketa-negozioa hobetzen jarraitzeko, eta energia garbia, eraginkorra eta jasangarria zabaltzen jarraitzeko.

Conrado Navarro

2. Balio-katea



2. Balio-katea

Hidrokarburoen meatzeetako esplorazioa, ikerketa eta ustiapena egiten du.



Ekoizlea edo inportatzailea



Birgasifikatzailea



Itsasontzietan garraiatutako gas natural likidotua eraldatzen duten eta sisteman txertatzen duten birgasifikazio-instalazioen titularra.

Gas naturala era gaseosoan biltegitratzeko instalazioen titularra.



Lurpeko biltegitzea




Garraiolaria



Gas naturala garraiatzeko Espainiako azpiegitura primarioaren eta sekundarioaren azpiegitura titularra.

Garraio-sistema kontsumo-puntuekin lotzen duen gas naturala banatzeko azpiegituraren titularra



BANATZAILEA



Merkaturatzailea



Gas naturala ekoizleei erosten die, ondoren kontsumitzaileei saltzeko. Gas-energiaren sistema nazionala erabiltzen du gasa kontsumo-puntuetara helarazteko.



3. Gas-energiaren sektoreko aurreikuspenak

“Gas naturalak, bai konbentzionalak, bai berriztagarriak, behar den jasagarritasun eta arrazionaltasun ekonomikoa ematen dio bai energia-trantsizioaren prozesuari zein etorkizuneko energia-mix berari ere, egindako inbertsioen balioa maximizatuz eta etorkizunekoak neurtuz”.

3. Gas-energiaren sektoreko aurreikuspenak

Gas naturala elektrifikazioaren bidaia-laguna izango da etorkizunean, eta era berean, energia berriztagarriak sorkuntza-mixean sartzen ere lagunduko du; izan ere, garraio-azpiegituren eta banaketa kapilarren sare bat garatu du dagoeneko, zeinari esker, gas konbentzionala banatu daitekeen, eta etorkizunean, gas berriztagarria banatu ahaliko den, hau da, biometanoa, hidrogenoa eta gas sintetikoa. Horrela, gas naturalak, bai konbentzionalak, bai berriztagarriak, behar den jasagarritasun eta arrazionaltasun ekonomikoa ematen dio bai energia-trantsizioaren prozesuari zein etorkizuneko energia-mix berari ere, egindako inbertsioen balioa maximizatuz eta etorkizunekoak neurtuz.

Gas berriztagarria eraldaketa-bektore bat da, kanpo-efektu ukigarri asko dituen hainbat eremutan, besteak beste: hondakinen kudeaketan, nekazaritza-garapenean, ekonomia zirkularrean, horniduraren segurtasunean eta baita energia elektriko berriztagarrien ekarpenak maximizatzen ere, eskaintza eta eskaera elektrikoaren arteko aldearen ondorioz sortutako soberakinak hidrogeno moduan biltegitratuz.



3.1 Sistemaren erronkak

Egonkortasun, argitasun, aurreikusgaitasun eta nahikotasun erregulatzailea are garrantzitsuagoa da egungoa moduko une honetan; izan ere, erronka handiei ari gara aurre egiten, bai gizarte mailan, bai ekonomia osoaren mailan ere. **Energia-trantsizioaren definizioak, klima-aldaketaren aurkako borrokak, airearen kalitatearen hobekuntzak eta ekonomia zirkularraren errefortzuak agenda markatu dute, eta ondorioz, energien neutraltasunaren edo existitzen diren baliabideen arrazionaltasunaren edo optimizazioaren moduko printzipioak egoera berria definitzeko oinarri moduan erabili beharko lirateke nahitaez.**

2018. urtean zera nabarmendu behar da, besteak beste, Espainian gobernu-aldaketa izan dela eta Trantsizio Ekologikorako Ministerio berria energia eta ingurumen arloko eskumenak txertatu direla. Eraldaketa horren ondorioz, gai horien bien elkarrekin sakondu da klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren definizioa sortzeko, eta isurpenen, berriztagarriak txertatzearen eta energia eraginkortasunaren helburu partikularrak zehazteko. Alde horretatik, 2018 bukaeran Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legearen aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa argitaratu zen, zeina, 2021-2030 Energia eta Klima Plan Nazional Integratuaren zirriborroarekin eta "Bidezko trantsizioaren estrategia"-ren proposamenarekin batera, "Energia Paketea"-ren parte baita, Espainiako Gobernuak 2019ko otsailean kontsulta publikoaren izapidean jarri zuena.

Jasangarritasun-arloko aragintza-garapenak ez dira mugatzen soilik Europa edo Estatu mailara. Alde horretatik, Autonomia Erkidegoak eta tokiko erakundeak beren estrategiak eta neurriak ari dira definitzen jasangarritasun-, energia-, ingurumen- eta mugikortasun-arloan. Horren adibide argia zera da, 2018 amaieran, Eusko Jaurlaritzak hainbat kontsulta egin zituela Mugikortasun Jasangarriaren Lege Aurreproiektua eta Ekonomia Zirkularraren Estrategia egiteko, eta Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Jasangarritasun Legea egiten jarraitu zuela, zeinaren behin betiko bertsioa 2019ko otsailaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen.

3.2 Egoera erregulatzailea

2018an, Europako araugintza-jarduerak nabarmen egin du aurrera Clean Energy for All Europeans (edo Winter Package) neurrien paketearen parte diren arauak onartzen; izan ere, ekimen hori Europako Batzordeko lege-proposamen bat da Parisko Akordioaren helburu klimatikoak 2010 eta 2030 artean lortzeko. Horien artean, 2018/2001 Zuzentarauaren onarpena nabarmentzen da, iturri berriztagarrietan –besteak beste, gas berriztagarriar– sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa; baita 2018/2002 Zuzentaraia ere, zeinaren bidez energia-eraginkortasunari buruzko 2012/27/UE Zuzentaraia aldatzen baita, 2030erako berriztagarriak % 32an sartzeko eta energia-eraginkortasuna % 32,5-era iristeko helburua ezartzen duenak, besteak beste. Gainera, Europar Batasunaren helburuak 2030erako zein epe luzerako lortzea ziurtatzeko helburuarekin, 2018/1999 Erregelamendua onartu da, Energiaren Baturaren eta Klimaren aldeko Ekintzaren gobernantza finkatzen duenak; izan ere, erregelamendu hori dela eta, estatu-kideek beren Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuak egin eta Europako Batzordeari bidali beharko diote, non, besteak beste Europako helburuei egingo dieten ekarpenak jasoko baitituzte, isurpenak murrizteari, berriztagarriak sartzeari eta energia-eraginkortasunari dagokionez.

Horrela, Europar Batasunak aurrera egiten jarraitzen du bere araudiak berrikusteari dagokionez, eta esparru berri bat ari da sortzen ekonomiaren deskarbonizaziorako bidean urratsak egiten jarraitzeko. Winter Package egitasmoan jasotzen den lehenengo fase hori izapidetzen amaitu ondoren, gas naturalaren sektoreko araudi-esparrua berrikusten hastea aurreikusten da, ziurrenez 2020an.

Europa, Espainia, erkidego eta toki mailan araugintza-kudeaketa proaktiboa eta etengabea egitea nahitaezkoa da gas naturalaren eta petrolioaren gas likidotuen (PGL) banaketarekin lotutako ingurunean, batez ere une honetan aldaketa eta erronka handiei aurre egin behar baitaie, eta energia-trantsizioaren eta etorkizuneko mixaren oinarriak definitzen ari baitira, eta gainera, datorren 2021-2026 araugintza-aldian gas naturala eraenduko duen esparru berriaren konfigurazioarekin lotutako lanak hasi baitira.

Araugintza-ereduan kontuan izan beharko giltzarrien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- **Araudi-esparruak** ingurune argi, egonkor eta auresangarri bat sortu behar du, jardueraren garapena ahalbidetuko duena, inbertsioa sustatuko duena eta gas natural konbentzionalaren eta berriztagarriaren erabilera zabaltzea erraztuko duena, energia-iturri horrek ematen dituen onurak aprobetxatuz, ingurumen, airearen kalitatearen eta lehiakortasunaren mailan.
- 18/2014 Legeak ezarritako araudi-esparruaren ondorioz, azkeneko ekitaldietan **oreka ekonomiko-finantzarioa** erregistratu da. Horri esker, gas-konpainiek beren ahaleginak eta baliabideak egungo eta etorkizuneko erronka handietan kontzentratu dituzte, gas-sarea zabalduz, erabilera berrien garapena sakonduz –besteak beste, garraioa–, eta gas naturaleko sareetan gas berriztagarria txertatzeko aukerari atea zabalduz.
- **Banaketaren kasuan**, nabarmendu behar da 18/2014 Legeak ordainsari bat ezartzen duela, banatzailearen sarera konektatutako bezeroen eta hornitutako gasaren arabera. Jardueran oinarritutako ordainketa bat da, bai oinarritzko edo hasierako ordainsaria zehazteko, zein urterto eguneratzeko ere; aldiz, gas-sektoreko beste jarduera batzuetan, esaterako, sektore elektrikoan, ordainsaria aktiboetan oinarritzen da. Azkeneko urteetan egiaztatu denaren arabera, banatzailearen ordainsaria horrela kalkulatzeko onuragarria da sektore osoarentzat; izan ere, banatzailearen jarduera hazkunde eraginkorrerantz bideratzen du, eta sistemaren jasagarritasunari laguntzen dio. Banatzailearen inbertsioak ordainduko dira soilik baldin eta sistemari diru-sarrerak ematen badizkiote; horrela, ordainketen eboluzioa edo banaketaren kostuak sistemaren diru-sarrerekin lotzen dira. Ondorioz, banatzailearen kasuan, araututako beste jarduera batzuen aldean, arrisku-errentagarritasuna sortzen da, zeina hazkundearen merkataritza-jarduerarekin berarekin lotzen baita, eta ez hainbeste inbertsioaren balioarekin. Izaera aldagarriko ikuspuntua du, eta horri esker, sistemak diru-sarren eta araututako kostuen arteko koherentzia mantentzen du.

2018ko ekitaldiari dagokion 14. likidazioari jarraikiz, ekitaldi hori 30 milioi euroko superabitarekin amaitu zen. Era berean, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak 2019rako ordainsarien eta ordainketen agindua bideratzean emandako aurreikuspenen arabera, 2019an ere bide positiboa jarraituko da.



3.3 Gas naturalak energia-trantsizioan duen zeregina


Gizartearen ongizatea eta garapena bermatuko duen isurpen neutroan gizarte batean bilakatzeko trantsizioa gauzatzeko, gas naturalaren bidea hartu behar da; hori argi dago. Energia-eredu jasangarriago, eraginkorrago eta lehiakorrago baterantz goaz, eta gas naturalak eta energia berritzagarriak funtsezko zeregina dute trantsizioan, etorkizunaren parte baitira. Energiaren Nazioarteko Agentziaren Txostenen arabera, gas naturala munduan hazkunderik handiena izango lukeen ohiko erregaia izango litzateke; izan ere, gas naturalaren kontsumoa % 50 handitu daiteke hemendik 2040ra.

Gas-azpiegiturak funtsezko mugarria dira energia-trantsizioan eta etorkizuneko deskarbonizazio-prozesuan. **Gas naturala aliatu eraginkorra eta fidagarria da eraldaketa-prozesu guztietan, bereziki helburu berde horrek dakarren erronka handi guztiei aurre egiteko irtenbide erabilgarri, ekonomiko eta ekologiko moduan; izan ere, gas naturalari esker, isurpen eta airearen kalitatearen mailan kutsagarriagoak diren erregaia ez lirateke gehiago erabiliko, besteak beste ikatza eta gasolioa galdaretan, edo petrolioaren ondoriozkoak lurreko eta itsasoko garraioan. Era berean, energia berritzagarrien lagungarriak eraginkorrena da.**

Energia-metamorfosi horren protagonista moduan, gas naturalak mugarria izan nahi du 2030era arteko Europako helburuez harago; izan ere, praktikan, ezin da ekonomia % 100 elektrifikatua izan, ezinezkoa da. Zenbait industria-prozesu ez lirateke bideragarriak izango gas naturalik gabe; izan ere, energia-hornidura garbia eta moldaerraza da, eta horren aurrean ez dago beste aukerarik.

Gas berriztagarria

Gas naturalarekin bateragarria da edozer proportziotan;
horri esker, $\text{CO}_2 = 0$ Balantzera hurbiltzeko aukera ematen du



3.4 Gas berriztagarria eta gas natural eramaileak

Teknikoki, gas berriztagarria bideragarria da. Gas berriztagarria garatzeko, araudi-esparru bat behar da, baita errentagarri bihurtuko duten eta epe luzeko apustu estrategiko moduan bultzatuko duten pizgarriak ere. Gainera, trakzio-palanka moduan honako hauek nabarmentzen dira:

Ekonomia zirkularra, non abeltzaintzan, nekazaritzan industrian edo zabortegetan eta hondakin-uren arazketa-estazioetan sortzen diren hondakin organikoek sortzen duten biogasa prozesatu eta biometano bihurtzen den, ondoren gasaren ohiko sareetan txertatu ahal izateko eta gas naturalaren erabileraren moldaerraztasun bera lortzeko, karbono-aztarna neutroarekin.

Energia elektriko sedentarioa biltegitratu daiteke, hidrogeno edo gas natural bihurtu ondoren sarera txertatu daitekeena edo zuzenean garraioan erabili daitekeena.

“Argudio horiekin, sektoreak irmotasunez azaldu behar du gasak zeregina betetzen duela isurpenik gabeko ekonomia batean, eta horrez gain, apustu teknologiko bat egin behar du gas berriztagarriaren industria finkatzeko”.



“1.700 kilometrora arteko autonomia eta 460 CV-ko motor dualak dituzten kamioi trailerrak daude”.

“gas naturala potentzial handiko aukera da taxiaren sektorerako”.

“gas natural eramaileko autobusen parkea ia % 20 handitu da 2017an eta 2018an”.

“2018an gas natural eramailearen ibilgailuen matrikulazioa % 146 handitu zen”.

Gas natural eramailea

Gas natural eramailea (GNE) etorkizunaren parte da. Garraioan, gas naturala lehiakorragoa da ekonomikoki, eta gainera, abantaila izugarri handia du ibilgailu elektrikoaren aurrean; gas-motorra egungo motorrekin bateragarria da, eta ondorioz, berehalako ordezkioa izan daiteke. Ohiko erregaiei (gasolioaren eta gasolinaren) **aldean egiazko aukera izateaz gain, gas naturalaren erabilerari esker, nitrogeno-oxidoaren isurpenak % 85 baino gehiago murriztu daitezke, eta esekidura-partikulak ia erabat murriztu daitezke. Ibilgailuak isilagoak dira, eta gainera, CO₂ isurpenak, alegia, berotegi-efektuko gas nagusia, % 20 murrizten dituzte.**

Espainiak potentzial handia du gas natural eramailearen merkaturatzeko. Sedigas sektoreko patronalaren datuen arabera, 2018an gas natural eramailearen ibilgailuen matrikulazioa % 146 handitu zen aurreko urtearen aldean. Merkatuan, dagoeneko, gas natural eramailedun hamabost automobil-eredu daude, dagokion ECO ingurumen-etiketarekin batera; eta era berean, 1.700 kilometrora arteko autonomia eta 460 CV-ko motor dualak dituzten kamioi trailerrak daude. Gainera, gas naturala potentzial handiko aukera da taxiaren sektorerako; izan ere, urtean 3.000 euro inguru aurrezten laguntzen du. Era berean, gas natural eramaileko autobusen parkea ia % 20 handitu da 2017an eta 2018an.



“Hainbat herrialdetan trenentzako aukera egiazkoa eta garbia moduan erabiltzen da dagoeneko, erregai kutsagarriagoak ordeztuko azpiegitura elektriko garestiak behar izaten baitira”.

Bestetik, adituek esaten dutenaren arabera, gas naturalak etorkizuna izango du itsasoko garraioan ere, Nazioarteko Itsas Erakundeak ezarritako ingurumen-ezarpenen ondorioz. Trenbidearekin antzeko zerbitu gertatu daiteke, eta gaur arte petrolioaren deribatuarekin bultzatu diren tren-makinetan gas naturala erabiltzearen aldeko apustua egin daiteke. Hainbat herrialdetan trenentzako aukera egiazkoa eta garbia moduan erabiltzen da dagoeneko, erregai kutsagarriagoak ordeztuko azpiegitura elektriko garestiak behar izaten baitira. Eredu horretan, eta merkatuan ustiatzeko aukeraren aurrean, hainbat froga egin dira dagoeneko gas natural likidotuak bultzatutako trenbide batekin.

Garraioan erregai moduan erabiliz gero, gasak hirien airea hobetzen lagun dezake. Horretarako, lehenik, gasolioarekin erabili zen pizgarri erregulatzaile bat izan beharko litzateke, baina ez pizgarri ekonomikoa, baizik eta ingurumen-araudiaren mailakoa. Alde horretatik, Eusko Jauriaritza eredugarria izan da, jasangarritasun lege bat sortu baitu, 2030etik aurrera gasolioa erabilera termikoetarako gehiago ez erabiltzeko obligazioa ezartzen baitu.

4. Nortegas



**“Nortegasen
banaketa-sarek 8.207
kilometro eta 1.025.525
hornidura-puntu
osatzen dituzte”.**

● Asturias

Gas Naturalaren hornidura-puntuak: 220.432

PGL-ren hornidura puntuak: 17.321

Biztanleria: 1,0 M - % 35 Gasifikazio maila ⁽¹⁾

● Cantabria

Gas Naturalaren hornidura-puntuak: 179.456

PGL-ren hornidura puntuak: 30.914

Biztanleria: 0,6 M - % 49 Gasifikazio maila ⁽¹⁾

● Euskadi

Gas Naturalaren hornidura-puntuak: 543.089

PGL-ren hornidura puntuak: 34.313

Biztanleria: 2,2 M - % 51 Gasifikazio maila ⁽¹⁾

(1) Iturria: MLBN - 2018ko abenduko datuak

NORTEGAS




Nortegas Espainiako merkatuko **gas-sektoreko bigarren operadorea** da, eta bere jarduera Euskadin, Asturiasen eta Kantabrian garatzen du; autonomia erkidego horietan dituen sareek **8.207 kilometro** osatzen dituzte, non **1.025.525 hornidura-puntu** barne hartzen diren.

Konpainiaren jardura

Konpainiaren jardura nagusia da gas naturalaren aktiboak banaketaren merkatu arautuan kudeatzea, honako hauek barne hartuz: azpiegitura berrien sustapena, horien garapena eta eraikuntza, baita bere sareen eragiketaren, mantentze-lanen eta etengabeko hobekuntzaren zerbitzuak burutzea ere.

Era berean, petrolioaren gas likidotuen merkatuan ere agertzen da, non, lehen aipatutako jardueraz gain, erregaiaren horniduraz ere arduratzen den.

Gas naturalaren merkatuan, Nortegasko bezeroak merkaturatzaileak dira. Jarduera hori 180 konpainiek burutzen dute Espainian, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) 2019ko maiatzeko datuen arabera. Merkaturatzaileak beren bezeroei hornitzen dieten gas naturala sareetan bideratzeaz arduratzen dira; aitzitik, petrolioaren gas likidotuko (PGL) negozioan, Nortegas amaierako erabiltzaileengana zuzentzen da. Kasu bietan, gasak eskaintzen dituen erabilerak, bai etxeetan zein hori kontsumitzen duten industrietan, ezberdinak dira.




HidroCantabricok (HC) presentzia handitu zuen Euskadin, Eusko Jaurilaritzari Naturcorp (gas naturalaren bere aktibo guztiak jasotzen zituen holding-a) erosi baitzion; sozietate hori Gas de Asturiasekin fusionatu zen (HC-ren jabetzakoa).

Nortegasek aktiboak erosi zizkion Gas naturali Kantabrian eta Murtzian (248k hornidura-puntu).

Nortegasek 117k hornidura-puntu saldu zizkion Redexis-i, bereziki Murtzian, Gironan eta Extremaduran.

Nazioarteko inbertsioen partzuergoak Nortegas erosi zion EDP-ri.



Nortegas Euskadin existitzen diren eta 2003an pribatizatu ziren gas naturala banatzeko enpresen fusioaren ondorioz sortu zen. Fusio horretan, Gas de Asturias eta Gas Cantabria sartu ziren ondoren.

Nortegas konpainia erabat bateratua da gas naturala banatzeko merkatuan. 1980ko hamarkadan izan zuen jatorria, enpresa publiko moduan jaio zenean, petrolioaren krisialdiari aukera bat eskaintzeko helburuarekin, gas naturalaren banaketaren bidez. Ekimen horrek 2000. urtetik aurrera izan zuen indarra, Euskadin gas naturala banatzeaz arduratzen ziren lau sozietate publiko nagusiak batu zirenean (Naturcorp, Bilbogas, Gasnalsa eta Donostigas), aktiboak bateratzeko helburua zuen proiektu orokor baten barruan; ondoren, pribatizazio-prozesu bat burutu zen, 2003. urtean amaitu zena.

Taldea indartu egin zen Gas Natural Cantabria edo Gas de Asturias erosi zituenean, eta azkeneko urteetan, hainbat aldaketa handiri egin behar izan die aurre, 2017ko uztailan amaitu zirenak, nazioarteko talde batetik atera zenean. Zatiketa horri esker, Nortegas firma independente moduan eratu ahal izan da, eta Espainiako gas naturalaren bigarren banatzaile moduan indartu.

Egun, Nortegasek bere jarduera garatzen jarraitzen du, eta gas naturalaren aldeko apustua egiten du, aukerarik onena baita gero eta erabiltzaile gehiagok energia garbia, ingurumenarekiko errespetagarria, lehiakorra eta erosoa erabiltzeko abantailaz disfruta dezaten. Hau da, energia hori bultzatzen du, pertsonen ongizatea emateko eta gizartearen garapen ekonomikoari laguntzeko.



4.1 Sozietatearen egitura eta gobernu-organoak

2017ko uztailaren 27an, Infrastructure Investments Fund-ek osatutako nazioarteko partzuergoak, honako hauen aholkularitzapean JP Morgan, Gulf Cooperation Council Sovereign Wealth Fund, Swiss Life Asset Management eta Covalis Capital, konpainiaren % 100 erosi zuen.

Nortegas taldeko gobernu korporatiboaren egiturak kotizatutako sozietateen gobernantza praktikarik onenak jasotzen ditu, eta honako hauetan oinarritzen da: barne kontrola, erantzukizun korporatiboa, gardentasuna eta profesionaltasun eta zorroztasun maximoa; horrela, helburua du balioa sortzea, eraginkortasun ekonomikoa hobetzea eta akziodunen eta inbertitzaileen konfiantza berrindartzea.

NORTEGAS ENERGÍA GRUPO, S.L.U

NORTEGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN, S.A.U

NED España Distribución S.A.U

NED Suministro GLP S.A.U

Administrazio Kontseilua

Sozietateek osatutako talde horren administrazioa 6 kidek eta kontseilua den baina kontseilaria ez den idazkari batek osatutako kontseiluaren eskuetan utzi da:

Presidentea Conrado Navarro Navarro

Batzordekidea John Edmund Lynch

Batzordekidea Mark William Mathieson

Batzordekidea Michael Marcel Vareika

Batzordekidea Francisco Javier Contreras García

Batzordekidea Adolfo Pardo de Santayana Montes

Idazkaria Lara Hemzaoui Rodrigo

Batzordeak

Nortegasek bi batzorde eratu ditu administrazio-kontseiluari funtsezko erabakiak hartzen laguntzeko organo moduan, baita dokumentuak eta txostenak prestatze laguntzeko ere:

Auditoretza: Administrazio-kontseiluari laguntza ematen dio konpainiaren informazio finantzarioa egiteko eta kontrolatzeko prozesua berrikustean, baita barne kontrolaren eta arriskuak kudeatzeko sistemen fiskalizazioan ere, zerga-kontuak barne.

Segurtasuna eta Osasuna eta Ingurumena: Administrazio-kontseiluari laguntzen dio segurtasun eta osasun eta ingurumen arloko estrategiak, politikak, helburuak eta baliabideak egitean eta jarraitzean.

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

Kontseilari delegatua





4.3 Xedea eta ikuspegia


XEDEA

GARA gas-banatzailer bat, eta gure legezko betebeharren arabera, gasa banatzen dugu modu eraginkorrean eta etengabea gure bezeroen artean, eta gasa modu orokorrean erabiltzea bultzatzen dugu erregai garbi eta jasangarri moduan. Izan ere, horrela, gizarte osoari ongizatea, lehiakortasuna, segurtasuna eta ingurumen-kalitatea emango zaio, inbertitzaileei modu etengabea eta arrazoitsuan ordainduko zaie, eta kolaboratzaileen garapen profesionala eta pertsonala sustatuko da.

IKUSPEGIA

NAHI DUGU erakunde moderno, etiko, adimentsua eta irekia moduan aintzatestea, garapen sozioekonomikoaren katalizatzaile eta gure komunitateekin eta horien kideekin digitalki loturik dagoena erronka globalei aurre egiteko, eta erreferente moduan aintzatestea nahi dugu, garapen iraunkorrari eta gizarte osoaren aurrerapenari modu erabakigarrian laguntzen baitiogu.

4.4 Balioak



Integritatea

Negozioarekin elkarerragiten duten interes-talde guztientzako tratu bidezkoa, berdinzalea eta errespetuzkoa moduan ulertzen da, inolako jokabide neurrigabekorik toleratu gabe.



Adimena

Erakundeak antolatzeko eta erabakitzeko erabiltzen duen modua da; azkarra eta erabakitzalea da, talentuari eta ideiei irekita dago, eta pertsonengan konfiantza du.



Berrikuntza

Egiteko eta pentsatzeko modu berrien moduan ulertzen da; aldaketaren aurrean irekita dago aukerak aprobetxatzeko; eta sorkuntza eta ekintzailetza sustatzen ditu, funtsezkoak baitira lehiakortasunerako. Horrela, kolaboratzaileak prestatzen dira balioa sortzeko, eta lankidetzara, kooperazioa eta konfiantza sustatzen dira ezagutza eta auto-ikasketa partekatzeko.



Erantzukizuna

Profesionalki jarduteko modua da: laneko segurtasun-arauak errespetatzen dira, erabakiak hartzean objektiboa da eta baliabide erabilgarriak modu eraginkorrean erabiltzen ditu; horretarako, arriskuak kudeatzen ditu, erakundeari garaiz jakinarazten dio etengabeko hobekuntzan desbideraketak gertatzen direnean, eta konpainiaren irudia kaltetzea saihesten du kanpoko jardueretan.



Konektibitatea

Gure interes-taldeekin distantzia- eta denbora-murrizketarik gabe sarean elkarerragiten laguntzen diguten teknologiak sartzeko erabaki irmoa hartu da; horrela, haien interesak eta premiak ezagutu daitezke eta erantzuna eman.



Ekitatea

Negozioarekin elkarerragiten duten interes-talde guztientzako tratu bidezkoa, berdinzalea eta errespetuzkoa da, eta ez du inolako jokabide gehiegizkorik onartzen.



4.5 Etika

Nortegasko administrazio-kontseiluak etikarekin duen konpromisoa islatzeko, 2018ko azaroan Nortegasen etika-kode berri bat onartu zen, compliance kudeaketa-sistema bat estaltzeko.

Betetze-programen funtsezko elementu bat kode etiko bat onartzea da, konpainiaren hainbat jarduera eraundu behar duten balio etikoak eta jarduera-printzipioak argi eta garbi islatu ditzan.

Alde horretatik, enpresaren oinarrizko arau edo betetze-irizpideak eratortzen diren lehenengo dokumentu bilakatzen da, hau da, erakundea zer nahitaezko arauetara (legetara) edo borondatezko arauetara (balio etikoak) atxikitzen den.

Dokumentu bakar horretan honako hauek aurreikusten dira: zer mekanismo-ren bidez onartzen eta eguneratzen den, helburua, ezarpen-eremua (sozietate-arloa, arlo pertsonala, harreman-arloa eta arlo geografikoa), balio korporatiboak eta jokabide-printzipioa, jokabiderako pautak, jarraipena, kontrola eta zigorra, komunikazioa, hedapena, prestakuntza eta ebaluazioa, eta hori eguneratzea eta onartzea.

Era berean, Nortegasko bost langilek osatutako etika-batzorde bat existitzen da, honako funtzio hauek dituenak, besteak beste:

1. Kode etikoa zabaltzea.
2. Kode hori kontsultan eta gatazken aurrean interpretatzea.
3. "Kanal etikoa" eskuragarri jartzea.
4. Salaketak bideratzea eta neurri zuzentzaileak, zigortzaileak, konpontzaileak, etab. proposatzea.
5. Sei hilean behin auditoretza-batzordearen aurrean txostena azaltzea.
6. Etika korporatiboko helburuak, politikak eta tresnak proposatzea, etika-kodea bi urtean behin berrikustea barne auditoretza-batzordearen eskutik.

e-tic
Egiten duguna gara

5. Nortegas 2018an



5. Nortegas 2018an



Nortegasen bakarkako ibilbidearen lehenengo urtea izan da 2018. urtea. Ekitaldi horretan, konpainiak kudeaketa-prozesuak ezartzen amaitu zuen konpainia independente moduan, eta Bilboko egoitza zentrolean arlo korporatiboak eta negozio-arloak sortu zituen, funtsezkoak direnak Taldearen erabaki estrategikoak hartzeko; era berean, gobernu korporatibo sendoa ere inplementatu zuen.

Gainera, erronka handien urtea ere izan da, eta konpainiak arrakastarekin gainditu ditu erronka horiek, jardueraren arlo guztietan aurreikusitako garapen- eta hazkunde-helburuak lortu ahal izateko.



Marka berri bat etorkizuneko bideari erabakitasunarekin ekiteko

Ekitaldiaren mugarririk garrantzitsuenak da Nortegas marka moduan jaio izana, baita identitate korporatibo berri bat merkaturatu izana ere, gizartearen aurrean aurkezteko eta hurbileko konpainia independente moduan hasten jarraitzeko. Horrela, bere burua birsortu du, bere sustraletara bueltatu da eta bere antzinako jakintza indarra pilatu du etorkizunerantz erabakitasunarekin ateratzeko.



Webgune korporatibo soilagoa, bisualagoa eta hurbilagoa


Nortegas markaren jaiotza onduz, barruko zein kanpoko euskarri guztiak egokitzeaz gain, www.nortegas.es webgune korporatibo berria ere jaurti da, konpainiak bere burua aurkez dezan bere intereseko publiko guztien aurrean, bai inbertitzaileen zein bezero potentzialen aurrean ere, harremanetarako espazio digital inoiz baino soilago, bisualago eta hurbilekoago eskaintzeko.



Harreman hurbilekoagoa bezeroekin

Bestetik, eta intereseko publikoekin hurbilekotasuna eta harremana hobetzeko ildo beretik, Nortegasek bi mugarri nabarmen izan ditu 2018an bere bezeroei zuzendurik. Lehenengoa: inbertsio bat egin du telefono-arretako zerbitzua indartzeko eta hobetzeko, prozeduren prestakuntza- eta egokitzapen-ekimenen bidez. Bigarrena: YoLeoGas izeneko mugikorreko aplikazioa jaurti du Espainiako konpainia banatzaile nagusiekin. Aplikazio horrek, digitalizazioaren bidez, erosotasun eta erraztasun handiagoa eskaintzen die erabiltzaileei kontagailuak irakurtzeko prozesuan, eraginkortasun handiagoa ematen die inplikaturako eragile guztiei, eta gardentasun handiagoa zerbitzuaren fakturazioarekin lotutako izapideetan.

Hazkundera sarean (2018)



“2018an, Nortegasek hornikuntza-puntuetan erregistratutako hazkunde garbia sektoreko gainerako enpresek eta konpainiaren datu historikoek lortutakoa baino hiru aldiz handiagoa izan zen”.

5.1 Konpromisoa hazkundearekin

2018ko ezaugarriak nabarmenena Nortegasek hazkundearen alde hartutako konpromisoa izan da. Izan ere, bere akziodun berriek bultzatu duten anbizio handiko hedapen-plan bat jarri du martxan. Plan horrek taldea eta merkataritza-estrategia indartu ditu, eta horri esker, konpainiak bere sareetara konektaturik dauden hornidura-puntuen kopurua handitzea lortu du. Horrela, inbertsioaren konpromisoa mantendu du, eta gas-sektoreko sistemaren jasangarritasun ekonomikoari eta finantzarioari lagundu dio.

Estrategia- eta garapen-apustu horri esker, ekitaldi amaieran, Nortegasek 1.025.525 hornidura-puntu eta 8.207 km-ko sarea zituen jarduten duen hiru autonomia erkidegoetan. Era berean, banaketa-sareetan bideratutako gas-bolumena % 5,1 hasi zen 2017. urtearen aldean, klimatologiaren eta konpainiak

industria-sektorearen aldeko apustua egitearen ondorioz. Hortaz, Nortegas, beste urtebetez, Espainiako gas-banaketa-ren sektoreko bigarren konpainia moduan finkatu da, % 12ko merkatu-kuota izan baitu, MLBNren (CNMC-ren) arabera.

Bestetik, 2016an Nortegasek petrolioaren gas likidotuko 83.000 hornidura-puntu inguru erosi zizkion Repsol Euskadin, Kantabriari eta Asturiasen. PGLren berezko instalazio horiek gas naturalera bilakatu izana kontuan izan gabe, Nortegasek 2018an erregistratutako hornidura-puntuen hazkunde garbia hiru aldiz handiagoa izan zen sektoreko gainerako enpresek lortutakoa eta konpainiaren datu historikoak baino.



Era berean, hazkunde garbiko datu horiek erakusten dute konpainia sektorean bakarra izan dela 2018an hazkunde-joera mantentzen, nahiz eta herrialdearen batez bestekoa baino merkatu-asetasun askoz ere handiagoa duten eremuetan jardun.

Sareko hazkundearen PGL eraldaketarik gabe (2017-2018)



Proiektu bitxiak

Nortegasek 2018an landutako garapen- eta hazkunde-planean honako proiektu bitxiak nabarmentzen dira:

- 1) Gas naturala Arabako Bastida eta Eltziego udalerrietara eta Kantabriako Arenas de Iguñara eramatea.
- 2) Fuel-olioa gas naturalarekin ordeztzea Asturiasko sorkuntza termikoko Aboño II. instalazioan.
- 3) Gas naturala banatzeko sarea martxan jartzea Arabako Guardia udalerriaren eremu historikoan.



1) Gas naturala Arabako Bastida eta Eltziego udalerrietara eta Kantabriako Arenas de Iguñara eramatea, udalerrri horietako biztanleei abantaila guztiak eskaintzeko. Helburu horrekin, Nortegasek GNL (Gas Natural Likidotuko) instalazio sateliteak instalatu ditu, gordailua aldizka berriz kargatzeko sistema dutenak, erabiltzaileei horniduraren jarraitutasuna eta zerbitzuaren erosotasuna bermatzeko. Bolumena nabarmen murrizten duen gas naturalaren forma likidotua da GNL; horri esker, biltegitratze eta garraio erabilerraza eta ekonomikoa egin daiteke.

Nortegasek gas naturalaren hornidura banaketa-sareengandik urruti dauden hiriguneetara hurbiltzeko egin duen apustuaren esparruan txertatzen dira Araban eta Kantabrian burututako proiektuak, eta hori egiteko, bezeroaren banakako instalazioen aldaketen ondoriozko gastu guztiak hartzen ditu bere gain; gainera, horri esker, bezeroak merkatu liberalizatuan sar daitezke eta eskaintza bateratu lehiakorragoak eskuratu elektrizitatearen eta gas naturalaren horniduran.

“GNL instalazioak soluzio aproposak eta seguruak dira gas naturalaren banaketa-sarea iristen ez den instalazioetarako eta eremuetarako”.



“Nortegasen estrategia da banaketa-azpiegiturak eraikitzeke eta zabaltzeko apustua egiten jarraitzea gas naturalaren hedapena zabaltzeko, gero eta pertsona eta enpresa gehiagok abantaila horiez guztiez disfrutatu ahal izan dezaten”.

2) Asturiasko sorkuntza termikoko Aboño II. instalazioan lanak amaitzea, non martxan jartzeko gas naturala erabiltzen den jada. Aldaketa horri esker, fuel-olioa kentzen da instalazioko erregai moduan, eta horrek, kontuan izanik gas naturala manipulagarriagoa dela eta errektuntza egonkorragoa duela, jarduteko eta mantentze-lanetarako abantaila suposatzen ditu. Baina, batez ere, onurak suposatzen ditu ingurumen aldetik; izan ere, CO₂ isurpenak minimizatzen dira erabilitako energia-unitateko, baita nitrogeno-oxidoak, sufre-konposatuak eta partikulak ere.

3) Arabako Guardia udalerriko eremu historikoan gas naturala banatzeko sarea martxan jartzea, Lursail horretan, eremu baxuak daude, esaterako, haitzuloak eta upeltegiak, non gas naturala erregai bideratu moduan erabil daitekeen bakarrik; izan ere, erregai horrek airean barreiatzeko joera izaten du. Gainera, eta kontuan izanik kontzientziazio-lan bat eta ingurunearekin konpromisoa bultzatzen duten neurriak hartu direla, lanak egitean instalazioen inpaktu bisuala ahalik eta gehien murriztu dira, kasu honetan, babestutako hirigune historiko horretan.



“2018an, Nortegasek Lan Arriskuak Prebenitzeko Kudeaketa Sistemaren Ziurtagiria eskuratu zuen OHSAS 18001:2007 arauaren arabera”.

5.2 Konpromisoa segurtasunarekin

Nortegasen helburu nagusia eta lehentasunezkoa da bere banaketa-saretik igarotzen den gas naturala etenik gabe eta baldintzarik onenetan iristea bere bezeroengana, eta horretarako, kalitate eta segurtasun exijentziarik handienak ezartzen ditu. Horrela, konpainiaren lehentasun estrategikoa beti segurtasuna da, bai bere azpiegitura eta jarduerena, zein pertsonena ere.

Konpromiso horren barruan, 2018an, sozietatean aldaketak egin ondoren, 2017ko abenduan onartutako Laneko Segurtasun eta Osasun Politika berria jarri zen indarrean. Bestetik, apirilean, dagokion kanpo-auditoria egin ondoren, Nortegasek, konpainia independente moduan, ondo berritu zuen Lan Arriskuen Prebenitzarako Kudeaketa Sistemaren ziurtagiria, OHSAS 18001:2007 arauaren arabera.

Ikuspegi oso baten bidez, Nortegasek segurtasun- eta prebentzio-kultura bat ezarri du bere eragiketa guztietan, langileei eta kolaboratzaileei lan-giro segurua eta osasuntsua emateko, legea eta lanaren ondoriozko arriskuen prebentzioa hertsiki betez. Alde horretatik, langileen zein zerbitzu-emaileen eta hornitzaileen parte-hartzea, komunikazioa eta inplikazioa sustatzen du segurtasun-arloan, eta kultura ere sustatzen du, prebentzioa erakundearen sistema orokorrean sartuz, enplegatuei, beren jardueri datzekien arriskuen gainean, prestakuntza eta informazioa emanez.

Prestakuntza-ekintzak Segurtasunaren arloan 2018an

BERTOKO LANGILEAK	2017	2018
Prestakuntza-ekintza kopurua	60	80
Prestakuntza ordu-kopurua guztira	1.307,98	1.568
Prestakuntza jaso duten pertsona-kopurua	Plantillatik 165 (% 67)	Plantillatik 171 (% 71)

Bertoko langileei prestakuntza-ekintzak emateaz gain, 2018an Nortegasek hainbat jardunaldi eman die Bizkaiko eta Arabako foru-aldundietako 83 suhiltzailei Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian (Araba).



2018an segurtasun- eta osasun-arloan egindako jardueraren barruan honako hau nabarmendu behar da:

Langile guztiak identifikatutako arrisku-taldeekin elkartu dira, organigrama berria eta ekitaldian zehar egindako ebaluazio guztien berrikuspena kontuan izanik.

Salgai arriskutsuen garraioa kudeatu da urtean zehar, hainbat instalazio edo gordailurako, eta ez da inolako gertakaririk erregistratu.

Urtean zehar Segurtasuneko Prebentzio Ohartarazpenen (SPO) plana erabili da. Talde operatiboaren helburuen arteko bat bisitaldiak "segurtasunari begira" egitea da, eta 2018an 655 jarduera egin ziren arlo horretan; datu hori 2017an erregistratutakoa baino bi aldiz handiagoa da.

Hamasei simulakro egin ziren instalazioetan, ia erabat ezarritako ekintza zuzentzaileak sortuz.

2018an 16 simulakro egin ziren.

- 5 Bulego.
- PGL-aren 8 instalazio.
- GNL-ren 3 instalazio.

“Nortegasek erregistratutako istripuen eta gertakarien kontrol eta azterketa zorrotza egiten du. 2018an istripu-kopurua jaitsi egin da, baita istripuen ondoriozko baja-jardunaldiak ere”.

LANGILEAK	2017	2018
BERTOKOAK		
Istripuak BAJAREKIN	1	0
Istriuak BAJA “In Itinere”-rekin	0	1
Istripuak BAJARIK GABE	11	1
Istripuak BAJA “In Itinere”-rik GABE	2	0
KONTRATATUAK		
Istripuak BAJAREKIN	5	2
Istriuak BAJA “In Itinere”-rekin	1	0
Istripuak BAJARIK GABE	1	3
Istripuak BAJA “In Itinere”-rik GABE	0	0

Ondorio moduan, erantsi behar da etengabe lan egiten jarraitzen dela Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistema prozesu eta maila guztietan erabat egokitzeko eta ezartzeko. Horretarako, sistema hori antolakuntza-egitura berrira egokitu da eta urratsak egin dira ISO 45001:2018 berrira egokitu dadin, hau da, laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa-sistemen nazioarteko lehenengo araura; izan ere, berrikuntza nagusi moduan, konpainiari exijitzen dio langileei kontsulta egitea eta haien parte-hartzea izatea. Zuzendaritzak hainbat prozesu barne hartzen ditu, hala nola gasa banatzeko jardueraren arriskuak eta aukerak

identifikatzea, bai erakundearen kanpoko egoera aztertuz (bere jarduera baldintzatzen duten aldagai makroekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak), zein barne mailako ezaugarriak (Nortegasen berezko berezitasunen ondoriozko indarguneak eta ahuleziak) ere. Era berean, interes-talde garrantzitsuen asmoak ere kontuak hartu ditu, informazio-iturriak, zuzenak zein zeharkakoak aztertuz (alegia, talde bakoitzarentzako garrantzitsuak diren gaien gaineko inkestak eta argitalpenak). Bi prozesu horien ondorioz, arriskuak eta mehatxuak minimizatzeko eta aukerak eta indarguneak ustiatzeko beharrezko ekintza-planak sortuko dira.



5.3 Konpromisoa kalitatearekin eta ingurumenarekin

Konpainiak hainbat aldaketa hartu zituen bere gain Nortegas moduan ibilbidea hasi ondoren, eta horren ondorioz, 2018an ingurumen- eta kalitate-kudeaketako sistemak antolakuntza eta enpresa mailako errealitate berrira egokitu behar izan ziren. Horrela, plan bat egin zen, eskakizun berriei erantzun ahal izateko ekintzak identifikatzeko eta ezartzeko. Aldaketa horiek ezartzeko, honako alderdi hauek izan ziren kontuan: erakundearen egoeraren inguruko barruko eta kanpoko gaiak; interes-taldeak eta haien eskakizunak identifikatzea; ingurumen-alderdi garrantzitsuak; lege-eskakizunak eta horien prozesuak. Horrela, eta zegozkion kanpo-auditoretzak egin ondoren, **ISO 9001:2015 eta ISO 14001:2015 ziurtagiriak berritu ziren, eta erakunde osora eraman ziren erreferentzia berriak dakartzan aldaketak.**


Araudi berrira egokitzeko premia aprobetxatuz, konpainiak bere interes-taldeen mapa eta haien eskakizunak sakonki berrikusi zituen, baita haien integrazioa ere sistemen kudeaketan eta konpainiaren estrategian. Alde horretatik, Nortegasen administrazio-kontseiluak stakeholders-en kudeaketa-plan bat onartu zuen. Plan hori ezarpen-fasean dago, eta honako hauek barne hartzen ditu: funtsezko helburuak, eta alderdi interesdunekiko interakzio maila, erantzukizunak eta ekintza nagusiak. Prozesu horrekin loturik, **konpainiak 2018an bere krisialdi plana eguneratu zuen, helburua duena negozioa zaintzea eta bere izen ona zaintzea. Horretarako, hainbat irizpide finkatu ditu egoera konplexuak identifikatzeko, egoera horien kudeapenean erantzukizunak esleitzu eta komunikaziorako estrategiak eta prozesuak ezarri.** Plan horrek, era berean, dagoeneko existitzen diren larrialdi- eta autobabes-planak osatzen ditu.

“Nortegasek kontuan hartzen ditu bere jarduerak ingurumenean esku hartzen dituen etapa guztiak, eta eremu horrekin hartu duen konpromisoak legezko obligazioak gainditzen ditu”.

Konpainiak ezarri duenaren arabera, ingurumen-arloko gaiak ikuspuntu honekin identifikatuko ditu: kontrolatu ditzakeen (alderdi zuzenak) eta eragina izan dezakeen (zeharkako) jardueren eta zerbitzuen bizi-zikloa (diseinua, eraikuntza, ustiapena, uztea eta eraispena); baita horiekin lotutako ingurumen-inpaktuak ere.

Nortegasen obra gehienek urbanizatutako gunek zeharkatzen dituzte, asfaltatutako edo zolatutako tartek zeharkatzen dituzte, eta ez hain sarri, galtzada-harrien eremuak edo natura-landa zeharkatzen dituzte.

Horrela, konpainiak sareen eta azpiegituren ingurumen-bisore bat du, hau da, IGS tresna (Informazio Geografikoko Sistema) bat. Sistema horri esker, eta webgune baten bidez, instalazio guztien informazioa eskuratu daiteke era multzokatuan, ingurumenaren alderdi esanguratsuenen datuekin, besteak beste: potentzialki kutsatutako lurzoruen inbentarioa, ibaiak, itsasoko eta lurreko kosta-mugaketak, hezeguneen zerrenda, natura-guneak, baita beste hainbat babestutako habitat, biosferako erreserba eta natura-sare ere.



2018-2020 aldirako, Nortegasek baliabide naturalak optimizatzea hobetzeko helburu handinahia ezarri du, eta egoera horretan, bere jarduerak ingurumenean esku hartzen duen etapa guztiak hartu ditu kontuan konpainiak, eta eremu horrekin hartu duen konpromisoak legezko obligazio guztiak gainditzen ditu.



Ibilgailu propioen kontsumoa

2017

2018

DIESELA + GASOLINA (litro)

17.948

15.493

GAS NATURALA (Kilo)

82.948

79.373



Bere legezko obligazioa betetzeaz harago, Nortegasek jarduera-plan bat ezarri du bere GNL eta PGLren instalazio guztien balizko ingurumen-arriskuak aztertzeko, arrisku-mapa osoago bat eskuratze aldera.

Ingurumen Erantzukizunaren Legeari dagokionez, konpainiaren jabetzakoak diren zenbait GNL eta PGL instalazio 1. lehen tasun mailan jaso dira, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren ezarpen-eremura atxikita daudelako. Ondorioz, Nortegasen jarduerak honako arlo hauetan zentratu dira: Ingurumen Arriskuen Azterketa (IAA) bat egitea UNE 150008 metodologiaren arabera; Arrisku Egoeren kaltearen garrantzia balioestea, Ingurumen Kaltearen Indizea (IKI) oinarri harturik, martxoaren 13ko 183/2015 Errege

Dekretuaren arabera; Finantza Bermea (FB) ebaluatzea Ingurumen Arriskuen Eskaintza Ereduaren (IAEE) arabera; instalazioarekin lotutako arriskuak zehaztea, ezarritako prebentziozko neurriak egiaztatu ahal izateko; baita Administrazioari Eratzearen edo Finantza Bermea Salbuestearen Erantzukizunpeko Adierazpenaren berri ematea ere.

Ingurumenarekiko duen konpromisoa kontuan izanik, Nortegasen ibilgailuen flota guztiak gas naturala erabiltzen du. Konpainiaren ibilgailuak erabiltzearekin lotutako CO₂ isurpenak erregistratutako erregai-kontsumoak oinarri harturik kalkulatu dira, eta beherakadak kontabilizatu dira bai isurpen orokorretan zein kilometroaren arabera isurpenetan ere. Ildo horretik, 2018an konpainiak kanpoko

auditore batekin egiaztatu zituen zer datu eskuratu ziren eta zer nolako metodologia erabili zen ibilgailuen erregaiaren kontsumoen karbono-aztarna kalkulatzeko, baita mantentze-lanetarako zentroen eta GNL instalazioen ura, argia eta gas naturala kalkulatzeko ere, eta prozesua hobetzeko beharrezko neurri guztiak hartu ziren.

Zenbaketa hori argi, zehatz-mehatz eta egitura onarekin egiteak datuak berrikusten lagunduko dio Nortegasi etorkizuneari; horrez gain, informazio-iturri hobeezinez, eta nazioarteko estandarren arabera justifikazio argi batekin hobekuntza-ekintzen ezarpena erraztuko dute.


ELEKTRIZITATE-KONTSUMOAK



UR-KONTSUMOA



ENERGIA-KONTSUMOA (Mwh)



Ez dago ingurumen-espedienterik irekita eta ez da inolako ingurumen-erreklamaziorik jaso ere 2018an zehar.

Gainera, zarata neurtzeko kanpaina bat egin da Erregulazio eta Neurketarako Tokien (ENT) % 15ean eta Nortegasen Gas Natural Likidotutako (GNL) instalazioen % 100ean.

HONDAKINEN KUDEAKETA

	2017	2018
Balioztatutako hondakin ez arrizkutsuak (PILATUA/URTE)	4	2,9
Balioztatutako hondakin arrizkutsuak (PILATUA/URTE)	1	0,2
Kudeatutako hondakinak guztira (PILATUA/URTE)	5	3,2

Tonak

■ 2017
■ 2018

ISURPENAK

	Kontsumoak	Isurpenak
Isurpen zuzenak	Gas naturala (GNL instalazioak eta mantentze-lanen zentroak)	70,45 tCO ₂
	Flotako ibilgailuen erregaia	288,85 tCO ₂
Zeharkako isurpenak	Elektrizitatea	74,89 tCO ₂
	Ura	0,21 tCO ₂ eq



5.4 Bezeroaren asebetetze maila



Nortegasek hainbat foro, batzorde eta aldiakako jarraipen-bilera egiten ditu, bere bezeroen itxaropenen eta premien gaineko informazioa biltze aldera. Gainera, **auditoretzak eta asetze-inkestak egiten ditu hilero, ematen duen zerbitzuaren kalitatea aztertzeko, eta etengabeko kontrola egiten du enpresa kolaboratzaileen gainean, hirugarrenen bidez zuzenean hornitzen dituen prozesuek exijitzen diren baldintzak eta kalitate maila bete ditzaten.** Bezeroaren gainean inpakturik handiena duten eta enpresa kolaboratzaile zerbitzu-emaileak dituen konpainiako eremuak honako hauek dira: Larrialdiak eta Bezeroarekiko Harremanen Kudeaketa, eta Hornidura Puntuaren Kudeaketa Teknikoa.

Asetasun maila

	2017	2018
Larrialdi-zerbitzuan jasotako telefono-arreta	8,50	8,60

1etik 10era arteko eskala

	2017	2018
Gertakaria komunikatu denetik teknikariak iritsi diren arte igarotako denbora	8,77	8,77

	2017	2018
Teknikariak emandako informazioa egindako lanaren inguruan	8,70	8,89

“2018an larrialdien kudeaketan lortutako asetze-indize osoa 8,75 puntukoa izan zen, alegia, 2017ko datua baino handiagoa”.

Larrialdien kudeaketa

Larrialdien kudeaketa garrantzirik handiena den puntuen arteko bat da bezeroaren asetze mailan. Inkesten bidez neurtzen da hiler, honako alderdi hauek kontuan izanik: larrialdien zerbitzuan jasotako telefono-arreta; intzidentzia jakinarazi den unearen eta teknikaria instalazioetara iritsi den unearen artean igarotako denbora; eta teknikari horrek emandako informazioa. Nortegasek joan den urtean atal horretan lortutako asetze maila osoa 8,75 puntukoa izan zen, 2017koa baino handiagoa.

Gainera, Nortegasek bere jardueraren kalitatea eta bere zerbitzuen eraginkortasuna indartzen du asetze-inkesten eta hainbat adierazleren bidez, esaterako, deiak iragazteko indizearen bidez, non larrialdiak artatzeko telefonoan jasotako dei guztiekin sortutako ohartarazpenak erakusten diren. Horrela, benetan larrialdiak diren deiak kontrolatzen eta probatzen dira, baliabideak eta arretarako denborak optimizatze aldera. Bezeroarekiko arreta hobetzeko neurtu beharreko funtsezko beste alderdi bat da larrialdien zerbitzura deitu denetik teknikaria gertakariaren tokira iritsi arte igarotako batez besteko denbora; orain 26,45 minutukoa da, hau da, finkatu zen 28 minutuko helburua gainditu da.

Bezeroarekiko harremana

2018an izandako aldaketei esker, kalitate mailan indartu eta egokitu ahal izan dira baita ere, bezeroarekiko arretaren zerbitzuen hobekuntzak txertatzen jarraitzeko, berariazko prestakuntzaren eta prozeduren egokitzapenaren bidez. Nortegasek milioi bat hornidura-puntu ditu, non bezeroarekin kontratu-harreman zuzenik ez duen; baina gas naturalaren hainbat merkaturatzailearen bidez, legeak behartzen duen zerbitzuak eman behar ditu, hala nola erabiltzaileen kontratuak aktibatu, aldaketak egin edo sarean sartzea ahalbidetu. Eragiketa horiek guztiak oinarri moduan erabiltzen dira gas naturalaren merkaturatzaile bakoitzak bere bezeroarekin elkarreragin dezan ondoren.

Nortegasek bere gain hartzen dituen obligazioei dagokienez, bereziki alderdi teknikoiei dagokienez, esaterako, irakurketak egitea, aldizkako ikuskaritzak egitea edo larrialdiei erantzutea, bezeroarekiko arreta egiten da gas naturala eta GLP banatzen espezializatutako plataforma telefoniko baten bidez. Era berean, konpainiak erreklamazioei erantzuteko edo hainbat kanal bidez jasotako kontsultak egiteko honako zerbitzu hauek ditu: webgunea (% 3), posta arrunta eta post elektronikoa (% 2), hornitzaileentzako plataforma telematikoa (% 13) edo bezeroari arreta emateko zentroa (% 82).

Asetasun maila Enpresa merkaturatzaileak	9,6
Asetasun maila C&SW	7,9
Asetasun maila Fakturazioa	7,5
Asetasun maila Kobrantzak	8

1etik 10era arteko eskala

Nortegasen Bezeroarekiko Harremanaren departamentuak harreman zuzena eta hurbilekoa mantentzen du jarduten duen merkaturatzaileekin. Nortegasko azpiegiturarekin konektatutako hornidura-puntuen % 92 metatzen duten konpainien barruan, 2018an egindako asetzee-inkestak 9,6 nota orokorra eman zuen 10en gainean.

Gainera, 2018an merkaturatzaile horiei emandako zerbitzua probatu zen kontratazioen eta Hirugarrenak Sareetan Sartzeko (HSS) kudeaketan jardueretan, ordainsarien fakturazioan eta kobrantzetan.




Hornidura Puntuaren Kudeaketa Teknikoa

Bestetik, Nortegasek hilero balioesten du erabiltzaileen osotariko asetze maila, aldizkako ikuskaritzari eta horniduran alta emateko prozesuari dagokionez. Izan ere, 2018an, arlo horietan, 8,03ko eta 7,79ko osotariko puntuazioak lortu ditu hamarren gainean, hurrenez hurren; balorazio hori mantendu egin da, nahiz eta konpainia independente moduan jarduten duen lehenengo ekitaldia izan.

Zerbitzu hori gauzatzen duten enpresen kalitate-kontrola auditoretzen bidez egiten da, eta 2018an, 223 aldizkako ikuskaritza eta 225 alta-ikuskaritza egin dira guztira.

Horrela, Nortegasko langileek jardura egiten dute berriz ere, eta egiaztatzen dute hasierako ikuskaritzan ez dagoela akats larririk. Horrela, bi kalitate-adierazleren bidez neurtzen dute beren burua, % 95ean ezarrita dagoena eta kasu bietan gainditu dena.

Etengabeko hobekuntza-prozesuaren barruan, 2018an, Nortegasek helburuen programa bat ezarri zuen epe ertain, non VAI tresna sortzea barne hartzen den, instalatzaileekin kudeaketak egiteko eta harremanetan izateko; merkaturatzaileentzako sareko komunikazio- eta informazio-sarbidea optimizatzeko; aldizkako ikuskaritzarekin edo bezeroarekiko harremanarekin lotutako informazioa zabaltzeko; edo kanporatutako prozesuen eraginkortasuna bultzatzeko, mugikortasun-soluzioak garatuz.



Konpainia independente moduan jardun duen lehenengo ekitaldia izan arren, zerbitzuaren kalitateak ez du eraginik izan.

5.5 Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko apustua

Nortegasek soluzio lehiakorak eta kalitatezkoak emango dituzten proiektuak bultzatu ditu hasieratik, Europa mailan energia-hornidura berriak izan daitezen, gizarte energetikoki eraginkorrago eta ingurumen aldetik jasangarriago batean. Egoera berri horretarantz joateko, konpainiaren I+G+b jarduera handitu egin da eta gasaren sektoreko konfiantza lortu du, bai Estatu mailan zein nazioarte mailan ere.

Gas-konpainia moduan, Nortegasek zentzua eman nahi dio bere jarduera guztiari, eta horretarako, ekonomia-aren deskarbonizazioan ari da pentsatzen. Egoera horretan, eta banatzaile moduan duen zeregina oinarri harturik, Europako gasaren industriak bermatutako lau ikerketa-lerro lehenetsiren garapenean parte hartzen du Nortegasek:

Keep It Running, helburua du bermatzea dagoeneko existitzen diren gas-sareek, banaketa-negozioaren core bussines direnek, etorkizunean funtzionamendu hobeezina izaten jarrai dezatela, gas-azpiegituren eragiketen, mantentze-lanen eta segurtasunaren jarduera hobeak eta merkeagoak eskuratzeko berrikuntza-proiektuen bidez.

Environmental Performance helburua du gas-banaketa-aren energia- eta ingurumen-eraginkortasuna hobetzea, ingurumen-aren gainean gas-jardueraren inpaktua murriztuko duten berrikuntza-proiektuak garatuz, eta proiektu horiek etorkizun hurbileko Europako ingurumen-araudietara egokituz.

Market Development Support gas naturaleko sareak energia gehiago bideratzeko prest izatea lortze aldera.



Hori hala izatea nahi da suspertzen ari diren merkatuei begira, hala nola gas natural eramalea.

Future Energy Systems, Nortegasentzat lehentasuna du etorkizunean gas naturaleko sareak erabiltzen jarraitzea bermatzeko. Gas berriztagarriak egungo azpiegituren bidez bideratuko dituzten proiektuen garapenaren aldeko apustua egiten du Nortegasek, eta horrek "Smart Grids", "Power to Gas" eta "Big Data Systems" proiektuen garapen teknologikoa ekarriko du. Azkeneko lerro estrategiko horren barruan jatorri berriztagarriko gasa edo biometanoa gas naturalaren banaketa-sarean txertatzeko garapen-proiektua agertzen da. Ekimen hori Washington DC-n (AEB) egin zen World Gas Conference 2018-an saritu zuten, eta IGU Innovation Award saria jaso zuen, Gas & Renewables kategoriararen barruan.

Aurreko ekitaldian zehar, Nortegasek garrantzia estrategikoko ikerketa-proiektuak bultzatzen jarraitu du, eta bazkide moduan parte hartzen du honako proiektu hauetan:

Erakunde finantzatzailea



- **HyGrid:** Europar Batasuneko H2020 programak finantzatua. Proiektuaren helburua da mintzetan oinarritutako teknologia hibrido berri bat diseinatzea, eskalatzea eta industrialki baldintza garrantzitsuetan erakustea, hidrogenoa gas naturaleko sareetatik zuzenean banatzeko.



- **Smart Green Gas:** proiektuaren helburua da goi mailako kalitateko biometanoa eskuratzea, gas naturalaren sarean injektatu ahal izan dadin edo automobilgintzako errektuntza moduan erabili ahal izan dadin. Nortegasek proiektuaren hiru jardueretako bat zuzentzen du, non teknika apurtzaileak eta Biogasaren arazketa- eta balorizazio-sistema berriak garatuko diren. 2018ko lanen helburua izan da Biogasaren Upgrading prototipoa amaitzea, eta Gipuzkoako Lapatz (Azpeitia) zabortegean probak garatzea, baita biogasaren injekzio adimentsuaren prototipoa garatzea ere Santurtziko (Bizkaia) Erregulazio eta Neurketa Gunean.



- **Sinatrah:** helburua du hidrogenoa garatzeko eta erabiltzeko soluzio aurreratuak bultzatzea. Eusko Jaurlaritzako Hazitek programak diruz lagundutako proiektua da, Tecnalia eta Siemens Engines enpresek inpartatzen. Proiektuaren helburua da hidrogenoaren balio-kateko bi katebegientzako funtsezko osagaiak garatzea, alegia, garraioa eta hidrogeno eduki handiko gas naturalaren nahasketak erabiltzea.



- **Dinegas:** ekimen hori ere Eusko Jaurlaritzako Hazitek programak diruz lagundua da, CEIT IK4 eta Iot Water-ekin inpartatzen. Proiektua 2020ko abendura arte luzatuko da. Mikrofabrikazioko tekniken bidez miniaturizatutako sentore bat garatzea izango du ardatz, gas-lagin bat eratzeko balioko duen sistema batean integratu dadin, hitzartutako neurri-puntuetan, eta hori erreazio-ganbera baterantz bideratu dadin, gasaren PCS neurria ahalbidetuz. Era berean, komunikazio-zirkuitu bat garatzea eta software multiplataforma bat inplementatzea ere izango ditu helburu, eskuratutako datuak monitorizatzen eta kudeatzeko.

Gainera, konpainiak hainbat akordio itxi ditu hainbat erakunderekin, Gas Natural Eramalearen abantailak ezagutarazteko eta horren erabilera bultzatzeko mugikortasun jasangarriko egoera batean.



5.6 Gas-energiaren sektorean dugun presentzia



Gas-sektoreko sisteman eta konpainiaren jardueran eragiten duten araudien garapenean modu proaktiboan eta kolaboratiboan laguntzeko eta parte hartzeko helburua oinarri hartuz, organo arautzaileekin, Trantsizio Ekologikorako Ministerioarekin, Autonomia Erkidegoekin eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin (MLBN) elkarreragiteko eragile aktiboa da Nortegas. Azterketarako, eztabaidarako eta araudi-proposamenak egiteko araututako organoetan gas naturala banatzeko jardueraren ordezkaria da, besteak beste, gas-sektoreko sistemaren araudi eragileak eguneratzeko, berrikusteko eta aldatzeko lantaldean, merkaturatzailea aldatzeko MLBNren lantaldean edo Hidrokarburoen Azpi-zuzendaritza Nagusian, biometanoa gas naturalaren sarean injeztatzea garatzeko. Esku-hartze zuzena izateaz gain, Nortegas erreferentziatzko kidea da energia-sektorean dauden

sektore-elkarte nagusietan. Sedigas patronalean dago, non zuzendaritza-organoen parte izateaz gain, Banatzaileen Batzordean eta horrekin lotutako zeharkako batzorde guztietan ere parte hartzen duen (mugikortasuna, gas berriztagarria, eraikintza, ingurumena, fiskala edo juridikoa).

Era berean, Gasnam-en bazkidea ere bada. Talde horrek gas natural eramalearen inguruko sektoreko hainbat interes biltzen ditu, non katean dauden hainbat interes-taldek parte hartzen duten, besteak beste, ibilgailuen fabrikatzaileek, zein karga-puntuen garapenak eta gas naturaleko hornidurak.

Nazioarteko eremuan, Nortegas Eurogaseko banaketa-batzordearen kidea da, Sedigasen ordezkari moduan, baita The European Gas Research Group-en (GERG) eta International Gas Union-en (IGU) hainbat batzorderen kidea ere.

Gainera, Nortegasek presentzia aktiboa mantendu du parte hartzen duen abangoardiako berrikuntza-foroetan:

- Gas Ikerketen Europako Taldea (GERG): Board & Plenary egin zen Bilboko Nortegasen egoitzan –non anfitrioi moduan jardun genuen–, eta ondoren Bruselan (Belgikan).
- International Gas Union (IGU): Utilization Committee lantaldearen barruan parte hartu genuen; Bartzelonan egin zen.
- Hautazko Energien Ikerketa Kooperatiboaren Fundazio Zentroa “CIC energiGUNE”. Patronatuko kidea.
- Sedigasen arloan, hainbat bilera egin dira biometanoa gas-sareetan injeztatzearen gainean.
- Nortegas ikasgela: Bilboko Ingeniaritza Eskolan 2017-2018 ikasturtean garatutako bost proiektuen amaierako aurkezpena, eta 2018-2019 ikasturterako lau gas-proiektu berri sustatzea.
- Bilboko Ingeniaritza Eskolako Energia Ingeniaritza Jasangarriaren gaineko Unibertsitateko Master Ofizialean parte hartzea 2018/19 ikasturtean. Gas Naturalaren Merkatuak ikasgaia irakastea.
- CIC Venture Café Biscay Start Up Bay proiektuan sartzea; proiektu hori sortze-fasean dago, eta enpresa-talde batek bultzatu du Bilbon enpresa-berrikuntzako gune bat instalatzeko.



5.7 Pertsonak



Nortegasen ustez, pertsonen garapena funtsezko eta premiazko elementu bat da beren egungo eta etorkizuneko planean. Horregatik, bere Giza Baliabideen politikaren lehentasunezko xedea da talentua erakartzea, bultzatzea eta integratzea, langileen garapen profesionala erraztuz, baita haien interesek bat egitea ahalbidetuz ere konpainiak prozesu guztietan dituen helburu estrategikoekin.

Hainbat konpromiso tinko hartu ditu, besteak beste, lege-esparruak eta etika-kodea betetzea, eta aldi berean, dibertsitatea errespetatzea, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza zainduz. Bere konpromiso sozialen barruan, enpresak pertsona

desgaituen integrazioaren aldeko apustua egiten du, plantillan zuzenean kontratatuz, eta Enplegu Zentro Berezien bidez.

Nortegasek enplegu egonkorra eta kalitatezkoa mantentzen du. Txotxen hau argitaratu zen datan, plantilla 241 lagunekin osatzen da. 2018an, garapen profesionala bultzatzeko, barne sustapena ahalbidetu eta bultzatu zen, lanpostu hutsak edo lanpostu sortu berriak betetzeko. Era berean, kanpoko talentua txertatzea ere bultzatu zen, proiektu teknologikoak eta estrategikoak bultzatzeari esker sortzen ari diren arlo berrietan ezagutza garatze aldera.



Nortegasek neurri arautuak ditu genero-berdintasuna zaintzeko eta familia-bizitza uztartzeko. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak esan nahi du ez dela diskriminaziorik egingo sexu-arrazoiengatik, bereziki amatasunaren, familia-betebeharrez arduratzearen eta egoera zibilaren ondoriozko arrazoiengatik. Nortegasen, batzorde parekide batek lan egiten du emakumeek eta gizonak aukera-berdintasuna izan dezaten enpleguari, prestakuntzari, sustapenari eta lanaren garapenari dagokionez. Horretarako, ustezko diskriminazioen jarraipenak egiten dituzte, eta politika aktiboak jartzen dituzte martxan sexua, egoera zibila, adina, lurralde jatorria, eta diskriminazioa edo aukera-berdintasunaren printzipioa urratzea sor dezaketen gainerako arrazoiak direla-eta hauteman daitezkeen ustezko diskriminazioak kentzeko.

Enplegua sustatzeko neurri moduan, eta emakumeak lanean sartzeari errazteko, deialdi batean sortzen den lanpostua betetzeko, Nortegasek emakume langabezei ematen die lehentasuna –nahiz eta beste gizon hautagai batek meritu eta profil profesional bera izan–, baldin eta kontratazio-dataren aurreko urtean seme-alabaren bat izan badu edo genero-indarkeriaren biktima moduan aitortu badute.

Nortegasek Konpentsazio Plan Malgu bat du, non langileak hainbat zerbitzu kontratatu ditzakeen, hala nola txartelak haurtzaindegirako edo janariarentzako, informatikako materiala erosteko edo osasuneko aseguru pribatu bat izateko. Era berean, bere langileentzako hainbat beka eta laguntza jartzen ditu eskuragarri, eta plantillaren % 99k pentsioen plan batean parte hartzen du.



2018an, konpainiak lehen hitzarmen kolektiboaren negoziazioa landu zuen enpresa independente moduan; akordio hori ondo amaitu zen eta 2019ko maiatzean sinatu zen. Nortegasek gizarte-ordetzakiekin batera lan egin du gasa banatzeko jardueraren beraren barruko harremanen esparrua hobeto arautuko duen hitzarmen bat garatzeko.

Profesionalen asetzea eta motibazioa bultzatzeko eta hobekuntza-ekintzak txertatzeko, Nortegasek 2018ko urrian lan-giroaren gaineko lehenengo inkesta egin zuen.

Inkesta horretan, % 84ko parte-hartze tasa izan zen, eta konpainiarentzat garrantzia estrategikoa duten zazpi alderdi aztertu ziren, non asetze maila orokorra 7,29koa izan zen (1etik 10era arteko eskala).

7 dimentsioetako bakoitzarekin lotutako klima-inkestaren emaitzen azterketaren ondorioz, hobekuntzarako ekintza-plan bat diseinatzea eta inplementatzea bultzatu da, 2019. urteko bigarren sei hilekoan eta 2020. urte osoan garatuko dena.

Asetasun maila (%)

LIDERGOA	78,8
LAN-BALDINTZAK	74,0
TALDE-LANA / LANKIDETZA	72,8
ANTOLAKUNTZA ETA ESTRATEGIA	71,8
GARAPENA	71,3
KOMUNIKAZIOA	70,8
NORTASUNA ETA KONPROMISOA	69,0


ASETASUN

OSOAK


% 73

Adierazgarri sozialak



ADINA



ANTZINATASUNA



KATEGORIA PROFESIONALA





5.7.1 Prestakuntza

Nortegasek aurrera egiten jarraitzen du etengabeko prestakuntza profesionalaren politikan, zeinaren helburua baita bere giza kapitalaren egokitzapen estrategikoa indartzea zorrotza den eta etengabe mugitzen ari den merkatu honetara. Gainera, badaki prestakuntza-ikastaroen bidez bere taldeen motibazioa eta asetze maila bultzatuko dituela, izen ona handituko duela eta talentua mantenduko duela. Ondorioz, urtea amaitu baino lehen, enpresako zuzendaritzak Prestakuntzarako Urteko Plan bat egiten du urtero, honako helburu hauek dituen: birziklapena eta langileen etengabeko hobekuntza, profesionalen ezagutzak lanpostuan sortutako aldaketetara egokitzea, eta langileen sustapen profesionala bideratzea.

2018. planean administrazio-kontseiluari zein Nortegasko zuzendaritza-taldeari zuzendutako prestakuntza-saioak egin dira, lidergoaren bidez berdintasunera zein negozioaren segurtasunera bideratutako kultura bat bultzatze aldera, kontuan izanik alderdi horiek konpainiaren balioen artean barne hartzen direla. Hain zuzen ere, ikastaro bat eman zen pertsonen kudeaketarekin lotutako erabakiak hartzean aurreiritziak identifikatzeko eta kudeatzeko, kontzientzia hartze aldera eta modu diskriminatzailean eragitea saiheste aldera. Bestetik, eta negozioaren segurtasuna indartzeko estrategiaren barruan, administrazio-kontseiluarentzako prestakuntza-saio bat garatu zen tresna informatikoen erabileraren prebentzioari buruz, okerreko erabilera batekin lotutako arriskuei dagokienez, esaterako, phishing edo nortasunaren ordezkapena.

Langileen garapen pertsonalaren eta profesionalaren aldeko apustu tinkoa egiten duenez, Nortegasek talentua kudeatzeko plataforma berria jarri zuen martxan 2018an: BE TALENT. Ekitaldian zehar, irakaskuntza-ekintzak banatu ziren ia langile guztien artean, bai jarduera-eremu bakoitzeko gai zehatzetan, bai zeharkako prestakuntzan ere. Azkeneko eremu horretan protagonismo berezia izan zuen Programa e-tico izenekoaren ezarpenak: Xedea, Ikuspegia, Balioak eta Etika Kodea, prestakuntza gaitasunen garapenean eta laneko arriskuen prebentzian, besteak beste.

ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA

	PRESTAKUNTZA- -EKINTZAK	BERTARATUAK	BERTARATUEN ORDU-KOPURU TOTALA
Lan-arriskuen prebentziorako prestakuntza	80	470	1.568
Hizkuntzen prestakuntza	17	33	1.233
Prestakuntza korporatiboa	48	474	1.990
ZEHARKAKOA GUZTIRA	145	977	4.791

BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

BERARIAZKOA GUZTIRA	54	193	1.663
----------------------------	-----------	------------	--------------

ZEHARKAKOA + BERARIAZKOA GUZTIRA 199 1.170 6.454



E-tic^o programaren bidez: **Xedea, Ikuspegia, Balioak eta Etika Kodea**, Nortegasek bere langile guztiek barneratzea eta transmititzea nahi dituen balioak eta konpromiso etikoak taldean lantzeko aukera izan zuten denek, modu bateratuan eta bere enpresako filosofia osatzen duten premisekin..

e-tic^o Programaren prestakuntza-ekintzak

TOTALAK ORDUAK PERTSONAK

Programa e-tik ^o : Xedea, Ikuspegia, Balioak eta Etika-kodea	1.146	191
Programa e-tik ^o : Xedea, Ikuspegia, Balioak eta Etika-kodea – Kudeatzaileak	228	38
Programa e-tik ^o -aren saio osagarria: Xedea, Ikuspegia, Balioak eta Etika-kodea	376	188
Programa e-tik ^o -aren saio murritzua: Xedea, Ikuspegia eta Balioak	10	5
Guztira orokorrean	1.760	422

Etengabeko hobekuntzara bideratuko duten jarduerak ezartzeko, Nortegasek, gainera, inkestak bidez, prestakuntzaren eraginkortasuna neurtzen du, eta 2018an asetze maila handia lortu zuen bere taldeen eskutik.

Prestakuntzaren asetazun maila

Berariazko prestakuntza-ikastaroen asetazun maila (pilatua urtean)	7,54
Agintarien asetazun maila beren langileek jasotako prestakuntzaren gainean, Prestakuntza Planaren betearazpenari dagokionez (pilatua urtean)	8,66
Agintarien asetazun maila beren langileek jasotako prestakuntzaren gainean, jasotako ezagutzei dagokionez (pilatua urtean)	8,33



5.8 Ekintza soziala

Nortegasek jarduten duen tokiko komunitateen garapen sozioekonomikoari lagundu nahi dio, gizarte-ekintza jasangarriko eredu bidez. Interes-taldeekin elkarriketa eta lankidetzaz izanez, bere ekimenen inpaktu sozial positiboa maximizatzen du. 2018an zehar, gizarte-bazterketa egoeran zeuden hainbat talderekin jardun du lankidetzan boluntariotzaren bidez, eta hainbat ekintza garatu ditu, besteak beste: jostailuen donazioa eta egoera hori jasaten duten haurrentzako jarduerak eta lantegiak prestatzea; plastikozko kapsulak biltzea ikerketa diruz laguntzeko eta gaixotasun arraroen tratamendua egiteko kanpaina baten barruan; GKE-ei donazioak egitea ekipamendu informatikoak emanez; edo hainbat elkarteri sarrerak ematea Bilboko Gabonetako Haurren Parkerako.

The background of the slide features a blurred image of financial market data. It includes a candlestick chart with blue and red bars, and several line graphs in blue and green. Numerical values like '42.97' and '42.17' are visible on the charts. The overall color scheme is blue and green, with a bright light flare on the right side.

6. Laburpen Finantzarioa

Nortegasko Galera-irabazien Kontu Bateratua


GALERA-IRABAZIEN KONTUAREN LABURPENA

M€	2017ko bateratua, urte osoko proforma (IFR)	2018
Diru-sarrera arruntak	222,8	229,7
Hornikuntzak	(18,8)	(21,7)
Taldeak ibilgetu materialerako egindako lanak	5,9	6,5
Ustiapenen beste hainbat diru-sarrera	12,4	9,5
Enplegatuei ordainsariak ematearen ondoriozko gastuak	(22,9)	(16,8)
Beste hainbat gastu	(30,3)	(35,5)
EBITDA	169,1	171,6
Amortizazio bidezko gastuak	(92,9) ⁽¹⁾	(81,9)
Ustiapen-irabazia	76,3	89,7
Gastu finantzario garbiak	(24,1)	(28,1)
Irabazi/(Galera) zerga aurretik	52,1	61,7
Irabazien gaineko zergen ondoriozko (gastua)/diru-sarrera (14,3) ⁽²⁾		33,5
Ekitaldiaren irabazia/(galera)	37,9	95,2

(1) Kalkulu hori egiteko, Nortegasen erosketan ordaindutako prezioaren esleipena eta alderantzizko fusioa 2017ko urtariraren 1ean gertatu izan balira moduan ulertu da.

(2) Kalkulu hori egiteko, lurraldearen arabera zerga ezargarria ezarri zaio bateratuaren gaineko zergen aurreko emaitzari.

MAGNITUDE ALDERAGARRI NAGUSIAK



• 2018ko **Diru-sarrera arruntak** 2017koak baino handiagoak dira, baldintza meteorologiko onuragarriagoen, hazkunde organikoaren eta PGLaren kontsumo handiagoaren ondorioz.

• **Hornikuntzak:** Bereziki, PGLaren hornikuntzaren gainera. 2018ko hornikuntzak 2017koaren gainetik daude, bereziki PGLaren kontsumoa handiagoa izan delako.

2018an, Enplegatuei ordainsariak emateko gastuak Beste gastuetara eraman dira, Nortegastik NEGera (zerbitzuen enpresa hornitzaile moduan) enplegatuak eraman direlako eta horrek Nortegasi ondorioak sortu dizkiolako. Orokorrean, magnitude biak antzekoak dira.

• **Amortizazio bidezko gastuak:** 2018an murrizketa izan da 2017aren aldean, gutxi gorabehera 3 eta 5 urte arteko aktiboen bizitza erabilgarria hasi delako.

• **Irabazien gaineko zergen ondoriozko (gastua)/diru-sarrera:** 2018an 49M€-ko ohiz kanpoko eragin positiboa izan da (Aurrez grabatutako zergen pasiboaren murrizketa, kutxan inparturik izan gabe); izan ere, Bizkaian sozietateen gaineko zergaren tasa orokorra % 28tik % 26ra murriztu da 2018an, eta % 24ra 2019an eta hurrengoetan (2018ko martxoan argitaratutako araua).

Nortegasko egoera-balantze bateratua

EGOERA-BALANTZEA ABENDUAREN 31N

M€	2017	2018
Ibilgetu materiala	1.066	1.031
Merkataritzako funtsa	46	46
Beste aktibo ukiezin batzuk	1.527	1.502
Beste aktibo finantzario ez arrunt batzuk	7	3
Zerga geroratuen ondoriozko aktiboak	25	20
Aktibo ez arrunten Totala	2.671	2.602
Beste aktibo ez arrunt batzuk	103	65
Eskudirua eta beste baliabide likido baliokide batzuk	131	157
Aktibo arrunten Totala	234	222
Aktiboaren Totala	2.904	2.824
Ondare garbiaren Totala	1.031	1.141
Obligazioak bidaltzearen ondoriozko pasibo finantzarioak	1.292	1.292
Zorraz taldeko enprekin	127	-
Beste pasibo finantzario ez arrunt batzuk	2	2
Beste pasibo ez arrunt batzuk	10	11
Geroratutako zergen ondoriozko pasiboak	349	291
Pasibo ez arrunten Totala	1.780	1.596
Pasibo finantzario arruntak	6	7
Zorraz taldeko enprekin eta enpresa bazkideuekin	3	7
Beste pasibo arrunt batzuk	84	73
Pasibo arrunten Totala	93	87
Pasiboaren Totala eta ondare garbia	2.904	2.824

- 2018ko abenduaren 31ko **Balantzeko Eskudirua 157M€ da; 2017ko abenduaren 31n, aldiz, 131M€ izan zen.**
- 2018 amaierako **Ondare garbia 1.141M€ da**
- **Nature-ren eskutik jasotako 127M€-ko bazkide-mailegua 2018an kapitalizatu da.**
- 2018ko ekitaldia ixtean izandako zor garbia honako hau da: **1.151M€**
- Akziodunak kredituaren finantza-ratio sendoak mantentzeko konpromisoaren ondorioz bultzatutako politika finantzarioa, inbertsio-graduaren kreditu-kalifikazioa mantentze aldera.
Ixtearen ondorengo gertaerak:
- 2019ko martxoaren 31n, **CNMC-k ebazpena argitaratu zuen, baieztatuz** Nortegas-ek eta NED España-k 2017ko maiatzaren 18ko **Azalpen Plana** bete zutela.
- Prozesu horren testuinguruan, Nortegas-ek kopuru esanguratsu bat jaso zuen bazkide-ekarpenaren kontzeptuan.
- **Nortegas-ek ez du espero ekarpen horrek Bonuen kalifikazioei eragingo dienik.**

Egitura finantzarioa eta Likidezia-politika

INDARREKO FINANTZIAZIO-MEKANISMOAK

Tresna	Jarritako zenbatekoa (M€)	Epea	Kupoia
5 urterako bonua	550	5 urte 2022-ko iraila	% 0,918
10 urterako bonua	750	10 urte 2027-ko iraila	% 2,065
Ezarritako zorra	1.300	8 años	1,580%
Kreditu-linia berriztagarria: zenbateko erabilgarria 100 M€	0	5 urte 2022-ko apirila	Tarteak: • 0m - 33,3m: % 0,075 • 33,3m - 66,6m: % 0,150 • 66,6m gainetik: % 0,300

INBERTSIOAK

Inbertsioak (M€)	2018	2017
GN banaketa	21,5	24,9
PGL banaketa	0,7	0,5
Totala	22,2	25,4

- Nortegas-ek **1.300M€**-ko bonuen bidez mantentzen du finantziazioa (5 urteko tartean 550M€ eta 10 urteko tartean 750M€)
 - Egungo egiturak birfinantzatzeko arriskua murrizten du**, epemugak zabalduz.
 - “Step-up” bonuak: dibidenduak egokituko zaizkien inbertitzaileei argi eta garbi komunikatutako politika, Nortegasentzako inbertsio-gradua mantentzeko helburuarekin.
 - Gainera, Nortegas-ek Nature-rengandik (taldearen sozietate nagusia Luxemburg-en) 127M€-rekin jasotako bazkide-mailegua kapitalizatu du.
- Likidezia-politika**
- 2018ko abenduaren 31ko **Balantzeko Eskudirua 157M€ da**.
 - Ez da diru-sarrera atxikirik existitzen ez Nortegasen ez bere subsidiario ezeinetan.
 - Sozietateak **kreditu-lerro berriztagarriaren 100M€** erabili ahaliko lituzke (gaur arte erabili gabe).



7. Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) egindako ekarpena

Nazio Batuen Munduko Itunera atxiki denez gero, Nortegasek konpromiso tinko bat hartu du Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), pertsonentzako eta planetarentzako etorkizun barneratzailea, jasagarria eta erresilientea eraikitzen laguntzeko bete beharreko plan nagusia baita.

Nazio Batuen Batzar nagusiak 2015eko irailean Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, nazioarteko komunitateak hartutako mundu mailako eta anbizio handiko planik handiena, honako helburu hauek dituen: pobrezia erazte, klima-aldaketaren aurka borrokatzea eta desberdintasunak murriztea. Ekimen hori Garapen Jasangarriko 17 Helburutan (GJH) islatu zen, eta horiek ezartzen dituzten helburu espezifikoak hurrengo 15 urtean lortu behar dira.

Bakarka hasi duen ibilbidearen lehenengo urtea igaro ondoren, Nortegasek NBE-en ekimeneko Munduko Itunaren Espainiako sarearekin egin du bat, sektore pribatuaren enpresa-jasangarritasunerako eta GJHak lortzeko ahaleginen erakunde katalizatzaile moduan.

Nazio Batuen GJHak betetzen laguntzeko konpromisoak zehazten dira, ondoren xehatzen diren moduan:



**3. HELBURUA:****GBIZITZA OSASUNTU BAT BERMATZEA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA**

Nortegasek segurtasun-, osasun- eta prebentzio-kultura bat ezarri du bere eragiketa guztietan, langileei eta kanpoko kolaboratzaileei lan-giro segurua eta osasuntsua emateko, legea eta lanaren ondoriozko arriskuen prebentzioa hertsiki betez. Ildo horretatik, segurtasun-arloko parte-hartzea, komunikazioa eta inplikazioa sustatzen ditu, bai bere langileen zein zerbitzuak ematen dituztenen eta hornitzaileen aldetik ere. Gainera, konpainiak prebentzioa integratu du erakundearen sistema orokorrean, enplegatuei prestakuntza eta informazioa emanez beren jarduerari dagokien arriskuen gainean.

**4. HELBURUA:****KALITATEZKO HEZKUNTZA ETA IKASKETA-AUKERAK SUSTATZEA**

Nortegasak aurrera egiten jarraitzen du giza baliabideen politikan, beren profesionalen garapena eta ikasketa sustatzeko. Eskumenak eta ezagutzak negozio-helburuekin eta balio korporatiboekin bat egiteko funtsezko mugarri moduan, enplegatuek aldaketa teknologikoetara zein erakunde mailakotara egokitzea sustatzen du, eta ezagutzaren transferentzia errazten du enpresa barruan. Ildo horretatik, ingurumen, gizarte eta gobernu korporatiboko irizpideekin lotutako gaien gaineko berariazko prestakuntza bultzatzen du (Environmental, Social and Corporate Governance edo ESG, ingelesez), horiek baitira enpresa edo negozio batean inbertsio bat egiteko jasangarritasuna eta inpaktu etikoa neurtzeko funtsezko hiru faktoreak.

**5. HELBURUA:****GENEROEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZEA**

Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak esan nahi du ez dela diskriminaziorik egingo sexu-arrazoiengatik, bereziki amatasunaren, familia-betebeharrez arduratzearen eta egoera zibilaren ondoriozko arrazoiengatik. Nortegasen, batzorde parekide batek lanean jarduten du emakumeek eta gizonen aukera-berdintasunak izan ditzaten enpleguari, prestakuntzari, sustapenari eta beren lanaren garapenari dagokionez, jarraipenak eginez, eta balizko diskriminazioak ezabatuko dituzten politika aktiboak martxan jarritz.



7. HELBURUA: ENERGIA SEGURUA ETA JASANGARRIA ESKURATZEKO AUKERA BERMATZEA

Gas naturala eraldaketa-bektore moduan zabaltzearen aldeko apustua egitea, bai ohiko erabileretan zein garraioarekin edo banaketa-sarretan gas berriztagarria injeztatzearekin lotutako erabileretan ere, Nortegasen helburuen artekoak dira. Estrategia hori gauzatzeko, GNB ibilgailuen flotan erabiltzea bultzatu behar da, baita biogasa edo upgrading aberasteko prototipoa amaitu, biometanoa lortzeko zabortegean probak garatu, edo biometanoaren injezio adimentsuko prototipo bat garatu ere.



8. HELBURUA: HAZKUNDE EKONOMIKO EUTSIA, ENPLEGUA ETA LAN DUINA SUSTATZEA

Enplegu egonkorrari eta kalitatezkoari esker, lan-giroko inkestari erantzun zioten Nortegasko langileen % 81,4k senide bati bertan lan egitea gomendatuko liekete. Garapen profesionala, prestakuntza, ezagutzaren kudeaketa eta lan-baldintzak etengabeko arretarako fokua dira Nortegasen estrategiaren barruan. Bestetik, konpainiak hainbat onura sozial eskaintzen die hitzarmen kolektibora atxikitako langileei, baita hainbat deskontu onuragarri eskuratzeko aukera ere osasun, gizarte eta aisialdi arloan, Nortegasen Beneficios Plus plataformaren bidez.



9. HELBURUA: AZPIEGITURAK ERAIKITZEA, ETA INDUSTRIALIZAZIO JASANGARRIA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Nortegasen ikerketa- eta berrikuntza-lerroak Europako gasaren industriak bermatzen ditu, eta gas naturaleko sareen funtzionamendu ezin hobea eraikitzeko, jarduteko eta mantentzeko helburua duten proiektuetan gauzatzen dira lerro horiek, baita energia- eta ingurumen-eraginkortasunaren hobekuntzan ere. Gainera, konpainiak gasaren ezarpen berrietan oinarritutako ekimenen garapena ere bultzatzen du, bai ezarpen mugikorrek zein egonkorrek ere, sareko gas naturalaren kontsumoa handitzeko GNKaren edo GNLaren amaierako erabilera berri moduan, eta negozio-eredu ezberdinak eskuratze aldera. Helburua da etorkizunean gas naturalaren sareak erabiltzen jarraitzea bermatzea, gas berriztagarriak eta gas berriak zirkulatzearen bidez.



10. HELBURUA: DESBERDINTASUNA MURRIZTEA

Jarduten dun tokiko komunitateen garapen sozio-ekonomikoari laguntzea, eta aukera-berdintasuna bultzatzen laguntzea Nortegasen konpromiso bat da, boluntariotza-programaren bidez garatzen dena eta gizarte-bazterketako egoeran dauden taldeekin lankidetzan jardunez. Konpainiak hainbat ekintza garatzen ditu, hala nola jostailuak donatzea; haurrentzako jarduerak eta lantegiak prestatzea; plastikozko kapsulak jasotzea gaixotasun arraroen ikerketa eta tratamendua diruz laguntzeko kanpaina baten barruan; GKE bati donazio bat egitea langileek ekipamendu informatikoak erosiz; edo Bilboko Gabonetako Haur Parkea babestea, hainbat elkarteri sarrerak oparituz. Gizarte arloan, Nortegasek hartu duen beste konpromisoetako bat da desgaitasuna duten pertsonen integrazioa, bai plantillan kontratazio zuzena eginez, bai Enplegurako Zentro Berezien bidez.



11. HELBURUA: HIRIAK INKLUSIBOAK, SEGURUAK ETA JASANGARRIAK IZATEA LORTZEA

Horniduraren kalitatea eta segurtasuna Nortegasen eragiketen estrategiaren parte dira, gas naturala bezeroengana iritsi dadin etenik gabe eta baldintzarik onenetan. Nortegasek, inbertsio-konpromisoa mantenduz, gas-sistemaren jasangarritasun ekonomikoari eta finantzarioari laguntzen dio; hortaz, bere sareetara konektatutako gas naturalaren hornidura-puntuen kopurua handitu du, eta ingurumenarentzako kaltegarriagoak diren erregaia ordeztu ditu.



12. HELBURUA: KONTSUMO-ETA EKOIZPEN-MODALITATE JASANGARRIAK BERMATZEA

Nortegasen jardueretan sortutako hondakin guztiak kudeatu egiten dira; horrela, horiek beste hainbat produkzio-prozesuetan berrerabiltzen laguntzen da.

Bestetik, eta hornitzaileei zuzendutako kontzientziazio-jardueren barruan, Nortegasek, kontratazio-baldintzen barruan, lan-arrikuak prebenitzeko baldintzak ezartzen ditu, baita bere ingurumen-politika betetzeko baldintzak ere. Hori betez, zerbitzuak ematen dituzten enpresek berariazko konpromisoa hartzen dute hondakinen kudeaketaren eta informazioaren arloan, eta gertatzen den edozer ingurumen-gertakari edo -istripu jakinarazteko ere.

**13. HELBURUA:****PRESAZKO NEURRIAK HARTZEA KLIMA-ALDAKETAREN ETA BERE ERAGINEN AURKA EGITEKO**


Nitrogeno-oxidoaren isurpenak murriztea, euri azidoa sortzeko arrazoi nagusienetako bat, zein beste sufre-isurpen batzuk eta esekidura-partikulan batzuk murriztea Nortegasen helburuak dira. Bere ibilgailuen % 70ak gas naturala erabiltzen du dagoeneko erregai moduan. Gainera, bere isurpenen zenbaketa hobetze aldera, 2018an konpainiak kanpoko auditore batekin egiaztatu zituen karbono-aztarna kalkulatzeko erabilitako datuak eta metodologia. Horrela, etorkizunean datuak berrikustea optimizatzen da, hobekuntza-ekintzak ezartze aldera.

**15. HELBURUA:****LURREKO EKOSISTEMAK BABESTEA ETA HORIEK MODU JASANGARRIAN ERABILTZEA**

Kapital naturala kudeatzea Nortegasen eragiketetan sartzen da, ez soilik banaketa-sareen eta GNL instalazioen eraikuntza-proiektuen ondorioz sor daitezkeen inpaktu kaltegarriak ezabatu ahal izateko, baizik eta paisaiaren balioak mantentzeko, horiek berreskuratzeko, aberasteko eta baita horiek berriz ere sortzeko ere, baldin eta aldatu badira. Horrela, Nortegasen azpiegitura guztiak diseinatzeko dira aukeratutako kokapenaren arrisku potentzialak kontuan izanik. Instalazioen kokapenak eta banaketa-sareen trazaketak aztertzen dira, arreta berezia jarriz urpean geratzeko arriskua duten eremuei, aireko kanalizazioei eta lur-jausiei lurren ezegonkortasuna dela eta.

**16. HELBURUA:****GARAPEN JASANGARRIRAKO GIZARTE BAKETSUAGOAK SUSTATZEA, JUSTIZIARAKO SARBIDEA EMATEA ETA ERAKUNDE ERAGINKORRAK ETA EFIZIENTEAK SORTZEA.**

Nortegasen kode etikoa edo jardunbidea du bai langileen jardura profesionalerako, bai interes-talde guztiak harremana izateko. Etika konpainiaren funtsezko elementua da, eta ondorioz, bere jardura guztiak integritatearen, ekitatearen eta erantzukizunaren balioetan oinarritzen dira, nahitaez.



17. HELBURUA:

GARAPEN JASANGARRIA LORTZEKO MUNDU MAILAKO ITUNA SUSPERTZEA

Nortegasek hainbat foro, batzorde eta aldiakako jarraipen-bilera egiten ditu, bere bezeroen itzaropenen eta premien gaineko informazioa biltze aldera. Helburua da gas-sisteman eta konpainiaren jardueran eragiten duen araudiaren garapenetan modu proaktiboan eta kolaboratiboan laguntzea eta parte hartzea. Hortaz, Nortegas eragile aktiboa da organo erregulatzailerekin elkarrenergitean, eta erreferentziatzko kidea da energia-sektoreko eta nazioarte mailako sektore-elkarte nagusietan.

